

1994ko azaroak 18

254. zenb.

PRESS

ARRASATE



**Abiadura
handian
dator trenak**

Berango



ALTZARIAK

*Sukalde-altzariak
doan izan daitezke*



DeLonghi
Elektragailuak

- ELEKTRAGAILUETAN MARKA GUZTIAK
- ARMAIRU ENPOTRATUAK ATE KORRIGARRIEKIN

ERAKUSKETA: Legarre pabilioia, z/g / Gipuzkoa etorbidea ☎: 79 01 92

egizabal



**oinetakoak
poltsak**

ferrerias, 9
☎: 79 66 01


arrasate

Moda jarraitzen duzu?



Zuriñe Velez de Mendizabal
Ikaslea
(13 urte)

Bai. Niri batez ere mini-gonak jaztea gustatzen zait baina erropak erosten komodoa den ere begiratzen dut.



Julio Valle Jubilatua
(60 urte)

Horretaz emaztea arduratzen da, baina nik uste dut modan dagoena erosten didala.



Amalur Lete Ikaslea
(16 urte)

Apur bat bai, baina gehienbat nire gustora jutzen naiz. Markei ere ez diet begiratzen, gorputzean zelan geratzen zaidan begiratzen dut.



Mikel Gonzalez Ikaslea
(13 urte)

Batzutan bai. Orain modan dagoena fraka bake-roak, Adidas zapatillak eta Astoreko jertsea jaztea da. Nik markei begiratzen diet zerbait erosten.



Txema Valle Jaizaleko tabernaria
(32 urte)

Ez, ezertarako ere ez. Jantziak erosten, merkea eta komodoa dena bilatzen dut.



Maria Zubillaga Etxekoandrea
(70 urte)

Nik daukadana jutzen dut, baina zerbait erosi behar badut, modernoak diren jantziak erosten gustatzen zait.



Kandi Fernandez Langabetua
(23 urte)

Niri moda ez zait inoiz gustatu, ez nau erakartzen. Ondo geratzen zaidana erosten dut.



Maria Angeles Okina Euskadiko Kutxako langilea
(57 urte)

Jarraitu jarraitu ez, baina modan dagoena erosten gustatzen zait. Bestela, erropa zelan geratzen zaidan ere begiratzen dut.

• ARRASATE PRESS •

Argitaratzailea: ARKO (Arrasate Komunikabideak) Azoka kalea, 1. 20.500 ARRASATE (Gipuzkoa)
Tfnoa: 77 05 65. Faxa: 77 09 40

Laguntzailea: Arrasateko Udala. **Zuzendaria:** Arantzazu Loidi. **Kazetariak:** Itxaro Zubillaga, Maider Egües, Maria Agirre. **Publizitatea:** Jaxone Mendizabal eta Ikerne Altube (77 08 15). **Administrazioa:** Agurtzane Gaintzarain eta Itsaso Errasti (Tfnoa: 77 08 15). **Maketazioa:** Txos Azurmendi. **Kolaboratzaileak:** Mikel Irizar, Blanca Jauregi, Esther Balanzategi, ASA taldea, Sabin Arrieta, Jon Garai, Joxe Ramon Elortza, Amaia Jauregi-Arraburu, Juan Bautista Agorria, Leintz Bertso eskola, Jose Mari Astigarraga, Jesus Larrañaga, Matilde Sainz, Iker Barandiaran, Jon Iñaki Lasa, Xabier Letona, Unai Loidi, Mikel Olabe, Nekane San Miguel, Karmele Perez, Sorginak, Kopi, Danel Goikolea, Amaia Martiartu, Maite Martinez, Iban Astondoa, Haritz Larrinaga, Cesar Cimiano, Leire Zubikarai, Koldo Zubizarreta, Joseba Vallés, Agerre. **Banaketa arduraduna:** Jabier Ozaeta. © ARRASATE PRESS. Tirada: 5.500. **Legedordailua:** 1124/88. **ISSN:** 0214-4654. Frankeo kontzertatua. **Inprimategia:** Gertu Koop. E. (Zubillaga, Oñati).



ARRASATE PRESSek ez du bere gain hartzen aldzikarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

ARRASATE PRESS paper birziklatuan egiten da.

Azaleko argazkia: Ainhoa Agirre.



Aldizkari honek Arrasateko Udalaren laguntza jaso du

••••

Bitxikeriak

Azken egunotan bitxikeria batzuk bizi ditugu.

Besteak beste, alde batetik Euskadiko Kutzak bidali digun eskutitza irakurtzea harritzekoa izan da. Eskutitz elebiduna, alegia. Baina zelako elebitasun zoragarria! (zoratzekoa hobeki esanda). Gaztelera nahiko txukuna baina euskera (?) ez da gure hizkuntzarekiko iaio batek idatzitakoa, hori ez. Hitzak, sintaxia, azentoren bat... Denetik aurki dezakegu. Nolako Euskadi halako kutxa!

Beste aldetik ere, Eusko (?) Jaurlaritzaren (Barne Sailarentzat) euskerak zenbat balio duen jakitea interesgarria izan zaigu. Ertzain ona izateko berdin zaio euskera edo arabiera ezagutzea. Iragarkietan hori eta holan erakutsi digu. Agian, beste batzuk bezala. Araba eta Arabia nahasten dute...

Baina nola da posible hainbeste zentzugabekeria...

Eta gero, harrigarria ere, HBko hautatuei (bakarrik HBkoei ote?) kredentzialak gaztelera hutsean bidali dizkietela irakurtzen dugu. Eusko (?) Legebiltzarrerako kredentzialak...

Nola da posible hainbeste zentzugabekeri...

Baina hizkuntzaren arloan zer da normalizazioa? Zelako

elebitasun mota nahi dute eraiki? Nire ustez hobe izango da guk geuk prozesoa eramatea eta sasipolitikariak eta erakunde ofizial edo sasiofizialak gainditzea.

Euskara erabili, ikasi, sakondu, landu...gogoz, zentzuz.

Gure esku dago.

IÑAKI BORDES

••••

Animaliak

Joan den urrian Animalien Mundu Eguna ospatu zen.

Irailaren 29an ere, Tossa de Marren (Gironan) egin ziren Animalien Defentsarako 4. Naziorteko Jardunaldietara joateko aukera izan genuen. Zezenketen aurka agertu den lehen herria izateaz gain, bertako Udalak antolatu ditu jardunaldi horiek; alkatea bera ere Animalien Ongizatearen defendatzaile sutua da.

Hainbat eta hainbat ponentzia interesgarri entzun ahal izan genituen:

- Granjako animalien etorkizuna Europan
- Zezenketen zitalteria
- Janzterakoan azaltzen dugun krudelkeria eta animalia-esperimentazioa.
- Eragina eta erantzunkizuna mundu teknologikoan.
- Animaliekin ontasunez jokatzera zuzenduriko Hezkuntza gizakorraren beharra.

Guztiok ere honako mezu hau helerazteko helburua

zuten: animaliak sentimena duten izakiak dira, berezko balioa dutenak; animaliek beren interesak dituzte eta euren buruen jabe dira; beste era errazago batez esanda, ez dira gauzak, hau da, ez dira guk nahi bezala erabil ditzakegun objektuak eta ez dira gure jabegokoak.

Malkoak isuri nituen, munduko galdera guztiak egin nizkion neure buruari eta une batez gizakumea izateaz lotsatu nintzen, baina, guk jaten ditugun esne, arraultza eta haragia produzitzen dituzten granja bati buruzko bideoa ikusi ondoren, garbi neukan nortzuk ziren benetako erantzuleak. Oiloak, bakteriazko kaiola beldurgarrietan bizitzaren zapuzketa jasateaz gain, erren daude, ezin direla ibili, eta hezurretako arazoak eta bularean babak dituzte. Txerriak, animaliarik argienetakoak, barra metalikoen artean sartuta mugitu ere ezin direla egin daude. Esne-behia da esnea topera atera nahian gehien esplotatzen dena. Behi koitadua, ikatz-mehatze batean egun osoz lanean diharduen gizakume batek beste lan egitera behartuta dago. La guztiak erren egoteaz gain, errepeko mastitisa eta hanke-tako min handia jasaten dituzte. Txahalak eta ardiak, nahastuta eta triste, oinazezko bizitzaren ostean heriotza besarkatzeko bide luzea egi-

tera behartuta daude. Infernuzko bizitza, eta zertarako? Kontsumitzailearentzako haragi merkeagoa produzitzeko bakar-bakarrik. Horixe da Europako granjen errealtate triste eta lotsagarria. Jendeak ikus ez dezan ate ostetan egiten dira izugarrikeriak.

Gure eguneroko jakiak tortura eta oinazean oinarritzen dira. Guzti horren lotsa sentitzen dugu, baina gerta dadin uzten dugu. Horrek, pentsarazten digu beren burua defenda ezin duten ahalmen gutxiagokoak izateagatik esplotatzen direla eta sexu-eta arraza-esplotazioaren pareka dela. Esplotazio guzti horretaz gain, egungo egoera orokorra ere tamalgarria da: gizakiaren eraginez planetatik egunero espezieak desagertzen dira; izan ere, gizakiak espezie horien habitata suntsitu, beren ingurune naturaletik kanporatu eta era guztietako abusua jasateko bidean jartzen baititu.

Aipaturiko esplotazio horrek eta egungo egoerak hausnarketa bat merezi dute eta baita gizon-emakumeok Arrasaten animaliak defendatu eta errespetatuko dituen talde bat sortzera animatzea ere.

Lan egingo ahal dugu elkarrekin zeregin jator hone-tan!

KLARA.



**BASABE
JATETXEA**

Menu eta afariak
Boda eta banketeak

Tfnoa: 79 91 84



ARETXABALETA

HIES EKIMENA

Astelehen, astearte
eta ostiral

5etatik 8etara.



Tfnoa: 79 26 99



**ORAINDIK HORRELA?
 BERBA BI IDAZTEKO LAU
 ZALANTZA DAUZKAZU?
 HITZ EGITEN BADAKIZU
 BAINA IRAKURTZEN ETA
 IDAZTEN PROLEMAK
 BADITUZU, DUDARIK EZ,
 ZATOZ GUREGANA!
 EUSKALANEK ZURETZAT
 PENTSATUTAKO IKASTARO
 ANTOLATU DU!**

**KLASEAK GABONEN OSTEAN
 HASIKO DIRA: ASTEAN BIRRITAN
 EDO HIRUTAN, GIRO JATORREAN.**

**NOIZ EMAN IZENA: ABENDUAREN 2RA ARTE
 NON: AEDN (PABLO URANGA, 6 ☎: 77 12 28)
 EDO ZURE LANTEGIKO EUSKALAN TALDEKO
 ARDURADUNARI ESAN.**



ARRAZATE	
ARRAZATEKO KANTZINA	
Eguzteko: 79 12 22	
Astelehena: 79 12 22	
Asteartea: 79 12 22	
Asteazkena: 79 12 22	
Osteguna: 79 12 22	
Ostirala: 79 12 22	
Larunbata: 79 12 22	
Igandea: 79 12 22	
ARRAZATEKO BARRIOAK	
Astelehena: 79 12 22	
Asteartea: 79 12 22	
Asteazkena: 79 12 22	
Osteguna: 79 12 22	
Ostirala: 79 12 22	
Larunbata: 79 12 22	
Igandea: 79 12 22	
ARRAZATEKO BARRIOAK	
Astelehena: 79 12 22	
Asteartea: 79 12 22	
Asteazkena: 79 12 22	
Osteguna: 79 12 22	
Ostirala: 79 12 22	
Larunbata: 79 12 22	
Igandea: 79 12 22	

GUARDIAKO FARMAZIAK	
Ostirala 10	
Eguzteko eta gaur: Corcuera, Muzo, koka	
Larunbata 19	
Eguzteko eta gaur: Arzak, Erpin	
Igandea 20	
Eguzteko eta gaur: Ameza, Sta. Mari-na	
Astelehena 21	
Eguzteko eta gaur: Ruiz, Maza	
Asteartea 22	
Eguzteko eta gaur: Morales, San Andre	
Asteazkena 23	
Eguzteko eta gaur: Azkoaga, Rorrena	
Osteguna 23	
Eguzteko eta gaur: Español, Itimotz	

ARRAZATE	
ARRAZATEKO KANTZINA	
Eguzteko: 79 12 22	
Astelehena: 79 12 22	
Asteartea: 79 12 22	
Asteazkena: 79 12 22	
Osteguna: 79 12 22	
Ostirala: 79 12 22	
Larunbata: 79 12 22	
Igandea: 79 12 22	
ARRAZATEKO BARRIOAK	
Astelehena: 79 12 22	
Asteartea: 79 12 22	
Asteazkena: 79 12 22	
Osteguna: 79 12 22	
Ostirala: 79 12 22	
Larunbata: 79 12 22	
Igandea: 79 12 22	
ARRAZATEKO BARRIOAK	
Astelehena: 79 12 22	
Asteartea: 79 12 22	
Asteazkena: 79 12 22	
Osteguna: 79 12 22	
Ostirala: 79 12 22	
Larunbata: 79 12 22	
Igandea: 79 12 22	

GUARDIAKO FARMAZIAK	
Ostirala 10	
Eguzteko eta gaur: Corcuera, Muzo, koka	
Larunbata 19	
Eguzteko eta gaur: Arzak, Erpin	
Igandea 20	
Eguzteko eta gaur: Ameza, Sta. Mari-na	
Astelehena 21	
Eguzteko eta gaur: Ruiz, Maza	
Asteartea 22	
Eguzteko eta gaur: Morales, San Andre	
Asteazkena 23	
Eguzteko eta gaur: Azkoaga, Rorrena	
Osteguna 23	
Eguzteko eta gaur: Español, Itimotz	

ARRAZATE

ZINEA

Las Arazateko eta gaur: Corcuera, Muzo, koka

INTSUMISIOA

Las Arazateko eta gaur: Corcuera, Muzo, koka

PILOTA TOPAKETAK

Las Arazateko eta gaur: Corcuera, Muzo, koka

HITZALDIA

Las Arazateko eta gaur: Corcuera, Muzo, koka

BLUES BANDAREN EMANALDIA

Las Arazateko eta gaur: Corcuera, Muzo, koka

VIII. ARGAZKI LEHIAKETA

Las Arazateko eta gaur: Corcuera, Muzo, koka

ORKATZ SKAUF TALDEA

Las Arazateko eta gaur: Corcuera, Muzo, koka

DIAPPOSITIBA EMANALDIA

Las Arazateko eta gaur: Corcuera, Muzo, koka

ANTZERKIA

Las Arazateko eta gaur: Corcuera, Muzo, koka

MODA DESFILEA

Las Arazateko eta gaur: Corcuera, Muzo, koka

EUSKALAN (AED)

Las Arazateko eta gaur: Corcuera, Muzo, koka

ARRAZATE

ZINEA

Las Arazateko eta gaur: Corcuera, Muzo, koka

INTSUMISIOA

Las Arazateko eta gaur: Corcuera, Muzo, koka

PILOTA TOPAKETAK

Las Arazateko eta gaur: Corcuera, Muzo, koka

HITZALDIA

Las Arazateko eta gaur: Corcuera, Muzo, koka

BLUES BANDAREN EMANALDIA

Las Arazateko eta gaur: Corcuera, Muzo, koka

VIII. ARGAZKI LEHIAKETA

Las Arazateko eta gaur: Corcuera, Muzo, koka

ORKATZ SKAUF TALDEA

Las Arazateko eta gaur: Corcuera, Muzo, koka

DIAPPOSITIBA EMANALDIA

Las Arazateko eta gaur: Corcuera, Muzo, koka

ANTZERKIA


Las Arazateko eta gaur: Corcuera, Muzo, koka

MODA DESFILEA

Las Arazateko eta gaur: Corcuera, Muzo, koka

EUSKALAN (AED)

Las Arazateko eta gaur: Corcuera, Muzo, koka



21 ASTELEHENA

ZINEA

"Días Contados" 7etan eta 9.30etan.

DIPOSITIBA EMANALDIA

Hies Ekimenaren sensibilizazio astearen barruan, diapositiba emanaldia arratsaldeko 6etatik 8etara, Eskoriatzako kultur etxean.

LOGOTIPO LEHIAKETA

Aretxabaletako Loramendi Kultur Elkarteak logotipo lehiaketa antolatu du.

Baldintzak: Lana aurkezteko orriaren neurria DIN- A-4koa. Gehienez 5 kolore erabili ahal izango dira, beltza eta zuria barne, hortik aurrera, nahi diren beste. Logotipoak eraman beharreko mezua; Berbari, euskararen hitzarmena. Lana aurkezteko epea azaroaren 24an bukatuko da. Lana sobre handi baten entregatu beharko da, lanaren atzekaldean gaitzizena jarritz. Kartazal batean gaitzizena eta norberaren datuak. Saria 10.000 ptakoa izango da.

EMAKUMEEN JARDUNALDIAK

Abenduaren 8, 9 eta 10erako Emakumeen jardak antolatu dituzte Leioan. Izena emateko epea 25ean bukatuko da, astearte eta asteazkenetan 7etatik 9etara Emakumeen Asanbladak duen lokalean eman dezakezue izena edo 770886 (Pili) eta 790415 (Malen) zenbakietara dei eginez.

22 ASTEARTEA

ZINEA

"Días contados" 7etan eta 9.30etan.

MENDI ASTEA

"Artzainak, azken nomadak" diapositiba emanaldia, Kurtzebarri eskolan arratsaldeko 7etan. Murruxiko Mendizale elkarteak antolatuta.

3. MUNDUA

Harreman, Arrasateko hirugarren mundu taldeak antolatuta, Unai proiektuaren egoreri buruz hitzaldia. Hizlaria: Inazio Galdos, Unai proiektuko arduraduna. Udaletxeko pleno aretoan arratsaldeko 7.30etan.

EUSKALDUNBERRIAK

Berri-Zahar eguna prestatzeko bilera informatiboa Aretxabaletan Loramendi Kultur Elkartearen lokalean.

HITZALDIA

"Minbizi ginekologikoa". Hizlaria: Lurdes Aritziturri. Monterronen 6.30etan. Emakumearen sailak antolatuta, Gipuzkoako emakume mastektomizatuen elkartearen laguntzaz.

BILERA

Produktu biologikoen elkartearen sortzen hasteko bilera arratsaldeko 7etan Monterronen.

SANTA ZEZILIA EGUNA

San Juan Parrokian Arratsaldeko 7.30etan. Mezan zehar Arrasate Musikaleko metal eta perkusio emanaldia. Meza ondoren Arrasate musikaleko Kamarako Orkestraren saioa.

23 ASTEAZKENA

MENDI ASTEA

"Mount cook, hodei txuri handirutz" diapositiba emanaldia, Kurtzebarri eskolan arratsaldeko 7etan. Emalea: Xabier Goñi. Murruxikok antolatuta.

HITZALDIA

"Bularreko minbizi" Hizlaria: Maria Jesus Mitxelena. Monterronen 6.30etan. Emakumearen sailak antolatuta.

HITZALDIA

Hies-Ekimenaren sensibilizazio astearen barruan, hitzaldia. Gaia: Hiesari buruz ezauzgarri orokorrak. Eskoriatzako Kultur Etxean arratsaldeko 7etan.

III. KOMIKI LEHIAKETA

OHO.ko 6. mailatik gorako edozeinek har dezake parte. Lan guztiak argitaragabeak eta euskaraz idatziak izan beharko dute. Lanak aurkezteko epea abenduaren 12an bukatuko da. Antolatzaileek ez dute bere gain hartzen sor daitezkeen lanen galerara edo hondatzea. Lanak taldean ere aurkez daitezke. Helbide honetara bidali: JARDUN Elkarte, Masterreka 13, behe, 20570 Bergara. Antolatzailea: Jardun.



ERAKUSKETA

Azaroaren 21etik 27ra "Lumazko idazkeraren IV. lehiaketa" ren erakusketa, Monterronen. Orduetgia: egunero 6etatik 8etara. Larunbat eta jaiegunetan 12etatik 2etara eta arratsaldez 6etatik 8etara.

24 OSTEGUNA

ZINEA


"Blade Runner" Amaia antzokian arratsaldeko 9.30etan. Sarrera: 300 pta (gazte txartelarekin 250 pta).

MENDI ASTEA

"Yosemite-Usa eta Salto del Angel" diapositiba emanaldia. Hizlaria: Adolfo Madinabeitia. Kurtzebarri eskolan arratsaldeko 7etan. Murruxikok antolatuta.

LORAMENDI LITERATUR LEHIAKETA

Aretxabaletako Loramendi Kultur Elkarteak eta Udal euskara batzordeak VI. Loramendi literatur lehiaketa antolatu dute. Bi sailetan banatuko da lehiaketa; poesia eta ipuina. Gaia librea da. Lanak makinaz idatzita bidali beharko dira DIN-4 neurrian. Lanak aurkezteko epea abenduaren 22an bukatuko da.



“Arrasateretik interesaturik

Eskolara iristen diren bisita guztietatik askok, kooperatibismoari buruz urtean zenbat ordu ematen dugun galdetzen digu. Erantzuna beti berbera izaten da: bat ere ez, kooperatibismoa eguneroko esperientziaren bitartez erakusten ahalegintzen gara eta”.

Iñaki Lakunzak

TU lankide

“Aretxabaletan eta Arrasaten

batutako diruekin Bardipada eta Unai herrietan burutu den garapen proiektua zertan gauzatu den ikusi ahal izan zuen. ‘Proiektu horri esker lurrak berdindu egin dira, gero bertan arroza hobeto lantzeko. (...) Arroz uzta oso pobrea izaten zen. Orain, berriz, arroz uzta laukoiztu egin da”.

Mireia Uribetxebarria 94-XI-8

Egunkaria

“Kulebroiek ez nautela harrapatu.

Horrenbeste malko merke, bapateko amodio eta biszeralitate kotre ez zait erakargarregia iruditu. ETBk produzituriko “Goenkale”z, aldiz, askatu ditut gerrikoaren bi zulo, traba mentalak ahaztu eta adkziora eramaten duen aldats beheara goxoan laga dut nire burua”.

Edorta Aranak

94-XI-13

ARGIA


“Arrasaten 8000 familia inguru daudela kontutan izanda, Egitamu Orokorri buruzko erakusketa ikustera jende gehiagok etorri behar zuen, izan ere denok gaude Egitamu Orokorriaren proposamenetan inplikaturik, eta ez proiektuak zuzenean ikutzen dituenak bakarrik. Arrasatear guztioi eragiten digu. Arrasaten zer hiri mota egin asmo den, zelan eta zergatik, ahaztu ezinezko gaiak dira guztiontzat”.

Kontxi Malet 94-XI-11

EL DIARIO VASCO

Zertarako eratu nahi da produktu biologikoen eskaerarako elkarteak?

Dagoeneko hainbat lagun gara produktu biologikoen bidez bizitza osasuntsuagoa bizi nahi dugunok. Ardura ekologikotik abiatuta pertsonen osasuna hobetu, lurrarekiko begirunea eta nekazaritza organikoak (ongarri kimikorik erabiltzen ez duena) bultzatu nahi ditugu. Horrela bizi izateko eskubidea dugula kontutan izanda eta Arrasaten produktu biologikoak saltzen dituen denda espezializaturik ez dagoela kontutan izanda, Arrasateko hainbat lagunek elkarteak eratzea pentsatu dugu. Esan beharra dago gainera, moeta honetako elkarteak Euskal Herriko hainbat lekutan ezagunak direla, adibidez, Gasteiz, Iruñea, Antzuola eta Bergaran.



Xabi Tramón

Elkartearen
bultzatzaileetarikoa

Asmoa, produktu biologikoak salduko lituzkeen almagar edo lokala herrian antolatzea da. Horren inguruan mugituko ginatzenok zer behar dugun erabaki eta horren arabera, eskaera egingo genuke. Baserritar edo ekoizleei zer behar dugun zehaztuz salmenta zuzena bultzatu eta bide batez biologikoki ekoiztera animatuko genituzke baserritarrak. Gainera, dendei konpetentzia egingo geniekenez, horiek produktu biologikoak salgai jar ditzaten lortu nahi dugu. Pentsatzeko era hau filosofia batekin loturik doanez, hitzaldi eta ikastaroak antolatuko lituzke elkarteak. Bestalde, edozein elkartek moduan gureak ere lehendakaria, idazkaria, bokal eta diruzaina izango ditu, baina helburua ez da irabaziak lortzea izango.

Lerro hauen bidez, jendea animatu nahi dut elkartean parte hartzea eta arazo nagusia tokia bilatzea denez, eskertuko genuke norbait lokala uztera animatzea. Bukatzeko gogoeta bat: natura oso emankorra da, ez dakit zergatik borrokatzen dugun bere aurka eta begiak isten ditugun bere aberastasunaren aurrean.



Kalitate gorenena leihotetan

LANTEGIA ETA ERAKUSKETA

Kataide poligonoa, 4. pabilioia. Tfnoa: 77 01 57 ARRASATE



**AGRICENTRO
OTXOA, S.L.**

- **NEKAZARITZA:** haziak, ongarriak, produktu agrokimikoak, e.a...
- **ABELAZKUNTZA:** pentsuak, botikak, abereentzako materiala, baserrirako tresneria, e.a...
- **LORAZAINTZAKO PRODUKTUAK:** ureztatzea, keramika, ongariak, e.a...
- **ETXEKO ANIMALIENTZAKO JANARIAK:** (txakur, katu, txori eta arraintzakoak)

Musakolako Industrialdea, z/g ©: 79 17 79 / 79 86 70
ARRASATE

Ardiak hilik

Aste honetan Arrasate inguruetakoki mendi batzuetan ardiak akabaturik agertu dira. Salaketa baserriar batzuk egin dute eta basatxakurren lana izan dela jakinarazi du Ertzantzak. Itxura denez txakur horiek beltzak eta grisak dira, polizi txakur edo pastor aleman itxurakoak dira. Guztira lau ardi akabaturik eta bi zauriturik azaldu dira, baina beste bi ardi ere falta ei dira.

Udal Irratiarentzat frekuentzia

Arrasate Irratiaren emisioak bertan behera uzteko agindua ematen zuen gutuna jasotzeaz batera, behin-behineko frekuentzia ere jaso zuen ostegunean Arrasateko Udalak Eusko Jaurlaritzaren Kultura Sailetik. Emisioak hasi ditzan izendatu zaion frekuentzia 107.7a da, emititzeko baimenik eman ez arren. Orain dela gutxi emisio frogak egiten hasi zen irratia 107.2an. Orain hiru hilabeteko epea du Udalak proiektu teknikoak aurkezteko.

Istripua

Asteazkenean goizeko 9ak baino lehen, istripua izan zen Muxibar baserriaren parean, Aretxabalarako bidean. Istripuan auto batek eta kamioi batek elkar jo zuten

**Antimilitaristen itxialdia**

Gose greban dauden intsumisoei elkartzuna adierazteko hainbat ekintza egin zen astebukaeran Arrasaten. Ostiralean enkartelada egin ondoren, 10 lagun Udaletxeko pleno aretora hurbildu ziren itxialdia burutzera. Zapatu arratsaldean itxialdian egondakoak eta beste zenbait herritar bildu eta manifestazioa egin zuten. Tikitixa lagun, manifestazioa jai giroan egin zen baina intsumisioaren aldeko oihuak ere ez ziren falta izan. Bestalde Arrasateko 108 gazte zozketatu zituzten Madrilan asteazkenean soldadutzara joateko egin zen zozketan.

Artisau ferixa

Gatzagako artisau kolektiboak antolatuta, II. San Milixan ferixa egin zen domekan. Ferixa ikustera jende asko hurbildu zen eta une baino gehiagotan Gatzagako pilotalekua txiki geratu zen. Gehienbat bailarako jendea hurbildu zenez, kotxe ilanda handiak ere sortu ziren. Aurtengo ekitaldian, Deba Garaioko eta Euskal Herriko artisauen lanak izan dira ikusgai.



eta ondorioz R.A.L. 22 urteko arrasatearra zaurituta geratu zen. Zauritua Santiago Ospitalera eraman zuten.

Panteoijabeen bilera

Aldain panteoia duten familiartekok bilera egin zuten asteazkenean. E.Hko Auzitegi Nagusiak hartu duen erabakiaren aurka apelazioa jarri dela adieraztea eta aurrerantzean jarraituko den bidearen berri ematea, izan zen bileraren helburua. Panteoijabeen ordezkari baten esanetan, ez dute amore emateko asmorik eta behar izanez gero, Estrasburgora ere joko dute. Panteoia dutenek, Aldai parkea eta era berean kanposantua izan daitekela uste dute. Horregatik, enterramenduak egiten jarraitu nahi dute.

JAIOTZAK

- Jon Agirreurreta Gonzalez. Azaroaren 5ean.
- Miguel Joseba Larrañaga Agirreurreta. 6an.
- Marta Ugarte Nuin. 8an.
- Jokin Dolara Balanzategi. 7an.
- Sara Miguelez Garitano. 5ean.
- Jon Mendieta Urrutia. 12an.

HILDAKOAK

- Encanación Elorza Alberdi. 3an. 72 urte.
- Anastasio Valor Caballero. 1ean. 46 urte.
- Luis Bergara Alzuri. 5ean. 45 urte.
- Jose Hidalgo Martin. 6an. 65 urte.
- Francisco Okina Ezkurra. 6an. 89 urte.
- Emilio Inda Loza. 9an. 78 urte.
- Francisco Herrero Muñoz. 11an. 74 urte.



M ENDIRAKO
EKIPAMENDU
TEKNIKOAK

Denda berria ireki dugu
Ez itsu-itsuan erosi. Eska ezazu aholkua.
Jon Lazkanok emango dizu eta.


HARRURIAGA, 8 BERGARA © - FAX: 76 08 84

URRATS
AHOLKULARITZA

GARIBAI, 3
Tfnoa: 79 87 74
ARRASATE

PRESS
ARRASATE

Harpidetzak:
77 08 15



MIKEL OLABE *

Ehiza ezbaian

Ehizaroa hasi denetik gure mendi eta lurraldeetan tiroak nonnahi ikusi eta entzun ahal izango ditugu. EAEko legediaren arabera, urriaren 12an hasi eta datorren urtarrilerarte eskopetak ugari izango ditugu ostegun, larunbat, igande eta jaietan. Legeak dioenez, egun hauetan bakarrik ehizatu daiteke.

Ekologistok, aspaldidanik ehiztarien aurkakotzat hartu gaituzte, askotan gure helburu nagusia eta ia ia bakarra ehizaren aurka ihardutea balitz bezala. Egia da, neurri handi batean behintzat, bien arteko gatazka polarizatua eman dela. Gure eginbeharra zabalagoa dela uste dut; planeta orokorren hartu, eta bertan bizi garenon ordena naturala ahal denik eta ondoen mantentzeko ahalegintzean dago kokka.

Mugimendu alternatiboak, eta, ekologistak bereziki, dogmen aurkakoak izan behar direlakoan nago, bestela askotan errealtatea den bezala arakatzeko gaitasuna galtzen baita. Hau eta beste arrazoi batzuk direla medio naturazale batzuk, beraien ehizaren aurkako joerak berrikusten hasiak dira, idazki honen mamiak honen ildotik jo nahi du.

Aipaturiko iritzia dutenen batzuk diotenez:

“Animalien egoerak zeri-kusi handia du gaur egungo eredu produktiboarekin, eta, orokorrean industrializazioarekin, eta ez hainbeste ehizare-

kin”. Baieztapen hau egia izan arren ez da egi guztia. Adituen esanetan azkeneko lau mendeetan 270 espezie bizkarrezurdun desagertu dira ehizarengatik.

“Ehiztari honek (eskopetero edo harakinak ez direnak) naturaz gozatu eta animaliekin lehia irekia edukitzea bilatzen dute”. Gizakia, ingurunea eta abereak domeinatzearen aldekoa izan da betidanik. Jokaera honek ekarri dituen ondorio larriak gaur egun ia inork ezin dezake ahaztu. Horrengatik naturarekiko errespetoa eta garapen sostengua eskatzen dugu ekologistok, ez ote da antzeko bat egin behar animaliekin? Animaliak ez dira gureak, eta ondorioz, behar ez direnean ez dago zertan hil.

“Ekintza zinegetikoak animaliekiko kontrol eta babesa ekarri izan du” Baieztapen hau egiten denean, betidanik estatu

.....

“Oraingo baldintzak aldatzen ez diren bitartean, ez dut uste ehizak inguruneari inongo mesederik ekar dakiokenik”

espainiarreko espezie handiak (caza mayor) ehizatu diren lekuak aipatzen dira, besteak beste Doñana, Monfragüe edo Daimiel...gure Herri honetan ez da erraza horrelako kasurik bilatzea. Besteetan ere, ehizaren praktika zeharo aldatzen ari da “todoterrenoak”, pistak e.a. direla medio. Gaur egun, ehiza inguruarekiko ekintza suntsitzaile bilakatzen ari delarik.

Ene ustez, ehizari buruz ari-negi eta urrutiko datuez baliatuz hitz egiten da. Arrazonamendu sakonagoak edukitzeko, lehen urrats bezala Euskal Herriko animaliekiko zentsua egin beharko litzateke, bai kontrolpean daudenena eta baita desagertzeko arriskuan daudenena ere. Gero, neurriak erabaki eta ez alderantziz, gaur egiten den bezala.

Ehiztariak behin ere ez dira nere etsaiak izan, beraien artean lagun asko bait ditut. Ehiztari izatera modu desberdinetatik hel daiteke, batzuk baserri giroan jaiokak direlako, besteak ohiturarengatik, e.a...Denon arteko elkarlana beharrezkotzat jotzen dut: ehizara joaten direnean inguruko dena tiroz ez hiltzen saiatzeko, birpopulaketak oreka ekologikoa apurtzen duenez berauen aurka jokatzeko, ehiztari-entzako azterketa on bat eskuratzeke...

Oraingo baldintzak aldatzen ez diren bitartean, ez dut uste ehizak inguruneari inongo mesederik ekar dakiokenik. Giza-emakumeok naturarekiko dugun gehiegizko jokabide antropozentrista (gizakia munduaren zentro bakarra) murriztearen aldekoa naiz. Ehizaren gatazka espezieen desagerearen ikuspuntutik bakar-bakarrik (ez da ikusi behar) beste arrazoi etiko edo eta, filosofikoak ere kontutan izan beharko genituzke. Ene ustez, ekologistok gure jokaerak aldatu behar ditugu, baina konpainiarako animaliei buruz, etxaberei buruz, eta, baita oihan eta mendietako aberei buruz ere. Animaliekiko jokaerak aldatu gabe, Planetaren aldeko lan on bat egitea oso zaila iruditzen zait.

* EKIKO PARTAIDEA

JON GARAI

USTEAK USTE

07A

Erakunde publikoek beren gastuen aurrekontu arrunteko %07a hirugarren munduko herri behartsuen garapenerako lankidetzarako eman dezaten helburua duen jarrera nagusitzen ari den honetan gaiaren inguruan zenbait burutatu datozkit. 07 zifraren jatorria ezagutzen ez dudala, kopuru honen egokitasunaz luze egin daiteke berba, gauden egoeran inoren arazoa konpondu baino lehen bertakoa astindu behar dela; gure bizi kalitatea kontuan izanda huskeria, limosna baino ez genukeela emango; zenbaki hutsak baino gehiago direla, honen atzean badugula herri garatuak nolabaiteko erantzunkizun edo ardurarik, edo zifra honen aplikazioak ez ote duen herrien arteko desoreka, areagotzen, bermatzen. Laguntza honen destinua sarritan komunikabideen eraginak sortzen dituen “moda” ezberdinak inposatzen du irizpide jakinen falta nabarmenduz. Laguntza bideratu ahal izateko garantiak eskatzea da beste joera, garantiak, gose dauden norbanakoen gainetik dauden egitura politikoek bete behar dituzten baldintzak mugatzaileak bilakatu. 07aren aldeko mugimenduaren ezaugarri garrantzitsu eta baliotsuen, nire ustez, giza mugimenduen eskaera ozena izatea da, talde politiko jakin baten edo batzuren monopolio arriskutik aldentuz.

Lore lurrindegia


Olarte kalea, 10 ARRASATE fnoa: 79 14 99

comercial
san juan

Garibai, 12
Tfnoa: 79 13 05

hikein
MARKO-JARTZEAK

Zerkaosteta, 4
Tfnoa: 79 13 84



Orain auto elektrikoa lantzen ari dira Eskolako elektronika departamentuan.

Kamioi elektrikoa landu dute Eskola Politeknikoan

Eskola Politeknikoak landu du laster martxan jarriko den kamioi elektrikoaren arlo elektronikoa. Eskolak, kamioi elektrikoek erabiltzen duten Bimodal izeneko motorraren kontroladorea eta kontrolezko panela egin ditu besteak beste. Bimodal moetak motorraz, hala nahi denean motor elektrikoaz nahiz gasolinazko motorraz ibiliko da kamioia eta motor termikoei gasolina botatzen zaien moduan, elektrikoan bateriak kargatu beharko dira argindarraren bidez. Motor elektrikoaz, ibilgailuak ez du zaratarik aterako eta kerik ere botako ez duenez, ez du batere kutsatuko. Kontsumoari begira gainera, oso merke ateratzen da motor elektrikoaz lan egitea.

Ekologiaren gainean duen arduradunaren eraginez, kamioi elektrikoak erabiltzea aurrerapausu handia izango zela iruditu zitzaizen Iberdrola eta Energiaren Euskal Erakundeari. Horrela bada, orain dela bi urte Valladolideko enpresa bati arlo mekanikoa eta Eskolari, elektronikoa garatzea eskatu zieten. Dagoeneko lan guztiak amaituta

daude eta estatu mailan lehen aldiz Getxon erabiliko dituzte kamioi horiek datorren urtean. Hasteko, zaborrak batzeaz arduratzen diren kamioiei jarriko diete motor elektriko baina geroago zerbitzu publikoak betetzen dituzten Renault Express markako autoei ere jarri nahi zaie eta une honetan Eskolan ari dira hori garatzen.

Baina Eskolaren ahaleginak ez dira hor amaitzen eta orain dela gutxi auto elektrikoaren gaia jorratzen hasi dira. Autoen merkatuan sartzeko asmorik ez duen arren, zerbitzu publikoak burutzeko erabiltzen diren ibilgailuen alorrean aurkitu nahi du txokoa Eskola Politeknikoak. Era horretan, postari, banatzaile eta oro har zerbitzu publikoei begira lan egiten dutenentzat auto elektrikoa egin nahi da. Lan hori egiteko dirua MCC eta SPRITik jasoko dute eta bi urte barru bukatuta izango dela espero da. Enpresa ingeles bat hasi da gainera auto horren karrozeria egiten. 500 kiloko pisua eramateko gai izango da autoa eta 90-100 Km/h abiadura hartu ahal izango du.

LAB eta Ospitalea

Euskaldekoko Ospitaleko zuzendaritzak garbiketa zerbitzua isteko azaldu duen asmoa salatu du LAB sindikatuak. Erroa garbiketa lana egiten den tokian erosi berri duen scanner-a jarri nahi duela eta, garbiketa zerbitzua isteko asmoa adierazi zuen zuzendaritzak joan den astean. LABen esanetan scanner-a kokatzeko beste tokiren bat bilatu beharko litzateke, era horretan zortzi lanpostu galtzea eta garbiketa pribatizatzea eragotziko litzateke eta.

Gameiren akordioa

Hilabete baino gehiago gatazka giroan egon eta gero, akordioa lortu dute Gameiko zuzendaritzak eta enpresako komiteak. Bideragarritasun planekin lotuta, 20 langileren kontratua bertan behera uztea proposatu zuen zuzendaritzak baina langileak ez zeuden ados, kanporatutakoei eskaitzen zitzaizkien ordainsariak egokiak ez zirela uste zuten eta. Lortu berri den akordioaren arabera, 16 langilek lana utziko dute hala nahi dutelako eta enpresak ordainsari egokiak emango dizkie. Baja aurkeztu duten 16 langileetatik, 58 urte baino gehiago dituzte lauk eta 29 eta 52 urte bitartekoak dira besteak.

TTUKUN

Fotokopiak
Enkuadernazioak
Koloretako fotokopiak
Planoen erreproduktzioa
Offseta

Ferrerias, 23 ARRASATE
Tfnoa: 79 46 62



JOSU TXOKOLATEGIA KAFETEGIA

Elkano, 25
ARRASATE
Tfnoa: 77 03 66

Hilbera kafetegia

Uribarri Etorbidea
ARRASATE



Aurten ez da jende pilaketarik egon anbulategian.

Jende gehiagok hartu du gripearen aurkako txertoa

Iazko urteaz konparatuta, 94ean zertxobait igo egin da Arrasaten gripearen aurkako txertoa hartu dutenen kopurua. 93an, 65 urtetik gorakoen %66'4ak hartu zuen txertoa eta aurten, berriz, %67'4ak. Aurreko urteetan bezala aurten ere emakumezkoak izan dira txertoa gehien hartu dutenak, gehiago ere badirela kontutan izan behar den arren: 1.098 emakumezkoak eta gizonnezkoek ostera, 855ek. Horrez gain, 65 urtetik beherakoak izan arren gaixotasun kronikoren bat duten 784 lagunek ere hartu dute txertoa: gehien biriketako gaixotasuna,

diabetesa eta bihotzeko gaixotasuna dutenek. Talde bietako lagun kopurua kontutan izanda, orokorrean 2.737 txerto ipini dira.

Osakidetzak Euskal Elkarte Autonomoan antolatzen duen gripearen aurkako kanpaina irailaren 19an hasi zen eta urriaren 31 arte iraun du. Sei astetan zehar anbulategian nahiz auzoetan ipini dituzte txertoak erizainek eta arduradunen berbetan, aurtengo esperientzia ona izan da batzuk auzoetan hartu dutenez, anbulategian jende pilaketarik egon ez delako. Kanpainak, gainera, erantzun ona izan duela azpimarratu dute.

Udal Plenoa

Ostiral honetan izatekoa zen Udal Plenoan, honako gai hauek ziren erabakitzeakoak besteak beste: eskeintzak aztertu ondoren 94ko aurrekontuaren inbertsioetarako mailegua zein entitaterekin sinatu eta 94ko aurrekontu kreditu aldaketen barruan, Eskola Politeknikoari dirulaguntza aurten edo datorren urtean ematea. Horretaz gain, AUKEAren zuzendaritza batzordean ordezkari aldaketa izan dela eta, AUKEAren estatutuek hala eskatzen dutelako ordezkari berria onartu behar zuen Udal Plenoak. Felix Ayalaren ordezkari orain Jose Mari Balzategi da Urbina-Maltzaga saskibaloitza taldeko lehendakaria eta ondorioz, berak izango du ordezkari zuzendaritza batzordean. Erdikaldeko hainbat etxabetan karkaba izateko gorde diren tokiei buruzko hitzarmenak ere sinatzekoak ziren jabeen eta Udalaren artean. Bukatzeko, Uribarriko zahar etxeko taberna adjudikatze lehiaketa publikoa zabaltzekoa zen.



LASAGABASTER

ZURE KONFIDANTZAZKO DENDA.

Zerkaosteta, 1 eta 2 ARRASATE Tfnoa: 79 27 27 / 79 13 55

Aukeratu dira arrisku soldata programako proiektuak

Kultur gestio zerbitzuei zuzendutako eta elbarrituentzako ekintza fisikoak antolatzen zuzendutako proiektuak aukeratu ditu Udaletxeko enplegu batzordeak aurtengo arrisku soldata programaren barruan.

Lehen proiektua Juan Luis Esperasate eta Anaje Uribesalgok aurkeztu dute eta asmoa ikastetxe, elkarte edo Udalentzat kultur programak antolatu eta ekipamendu kulturalen berri ematea izango da. Herriko jaiak, aste kulturalak edo ibilbide kulturalak antolatuko dituzte besteak beste, baina kooperatibak bisitatzera etortzen direnentzat bisita gidatuak ere eratu dituzte. Bigarre-na, berriz, elbarrituen kolek-

tiboari zuzendua izango da eta Oscar Carrascal eta Angel Zeziaga dira bultzatzaileak. Elbarrituen integrazioa bultzatzuz, lagun horien beharrei egokitutako ekintzak antolatuko dituzte, hala nola: uda-

lekuak, ekintza fisikoak...

Udalak, enplegua sustatzeko programaren barruan Gipuzkoako Diputazioak ematen duen laguntzaren bidez proiektu bakoitzeko lagun bat kontratatuko du


maiatzaren 15era arte. Hemendik eta maiatzera bitartean, LKS enpresaren tutoritzapean proiektuaren bideragarritasuna, merkaturaren azterketa eta azterketa ekonomikoa egingo dute arduradunek.

Aurten zazpi proiektu aurkeztu dira deialdira eta Marga Garmendia enplegu teknikariaren berbetan, proiektu batzuk arrisku soldata ematen duen laguntzara egokitzen ez zirenez, arazoak eduki dituzte aukeraketa egiterako orduan. Garmendiaren ustez proiektu batzuk beste laguntza moeta batzuen beharra zuten eta ez zen garbi ikusten aukeraturako bezala aurre-azterketaren beharrik zutenik.



J.L. Esperasate, Anaje Uribesalgo eta Oscar Carrascal.

ALDA EZAZU BIKOTEA HILABETERO



EROSOAGOA DA ETA

MULTILENS botatzeko lenteak

Ukipen lentineen abantail guztiak eta hilabetero berriak jatzeko erosotasuna. Erabili... eta bota. Horren erraza. Eta horregatik, beti ikusmen bikaina ixurkari bakar bat eta begientzat ziurtasun osoa. Eta ez dira lentixka arruntak baino garestiagoak! MULTILENS botatzeko lenteak: Erosotasuna ez baita botatzekoa.



J. Larranaga

MULTIOPTICAS

Ibargaray, 16 - BERGARA
J. Carlos Guerra, 1 - ARRASATE
J. M. Baradiaran Enparantza, s/n - ORDIZIA

MULTIOPTICAS EIBAR

Bidebarrieta, 2 - EIBAR


MULTIOPTICAS

Beti Zuri Begira

Arrasateko zikloturistek afaria egingo dute larunbatean eta denboraldiari agur esateko elkartuko dira. Afarian kafe ostean, 94ko denboraldian txapeldunak izan direnen artean oroigarriak banatuko dituzte.

Txapeldunen izenak ondorengoak dira: Fernando Larrañaga, Jesus Parra, Marcelino Santos, Jose Luis Ubidos, Jose Miguel Landa eta Jose Luis Gomez.

Argazkian Gomez azaltzen da, azkenengo zortzi urtetan bere izan da txapelduna.



Inazio Galdos, Indian dagoen jesuita atxabaltarra, etxera etorri da begietako ebakuntza egiteko eta bitartean egun batzuk pasatu ditu senitartekoekin. San Frantzisko Xabier ikastolako ikasleentzat 3. munduari buruz

hitzaldia eman zuen asteazkenean. Unai proiektuko ardura duna da eta berak esan digunez, oso pozik daude Arrasateko eta Atxabaltako herriak Unai proiekturako ematen ari diren laguntzarekin.



Pablo Landaluze eta **Joseba Ibaguren** tolosarrak, Arrasate Telebista eta ARRASATE Pressen egiten den lana ezagutzera etorri ziren

asteartean. Tolosa aldean telebista jartzeko asmotan daudenez, gertutik ezagutu nahi izan dituzte Arrasateko telebista eta aldizkaria.



LORATEGI "BAR"

Iturriotz, 7 **ARRASATE**
Tfnoa: 79 04-67



Likidazioagatik eta abenduaren 15era arte, beherapen bereziak jostailuetan.

Kanpatorpea, 4
Tfnoa: 79 12 19 **ARRASATE**



San Frantzisko Xabier ikastolako hasierako 3 promozioetako 70 bat guraso bildu ziren asteazkenean Ferixalekuko ikastola ezagutzeko. Aita batek, Andres Gabilondok, ondorengo bertsoa egin digu:

Euskara maite genduan denok
elkarrengana bilduak
entzun genduan hitz zatar asko
ta jaso despreziuak
Franco zenaren zigor azpitik
loratutako kimuak
gaur hemen garbi ikusten dira
eman dituen fruituak

Bi lerro hemen eskeinitzeko
eman didate aukera
ta Txiritaren hitz eder haiek
nihoa berriztatzeraz:
bide askotik gauza zuzenik
ezin genzake atera
onena zein den ondo neurtuta
bildu gaitezten batera.

Monterronen 8 zuhaitz botako dituzte ustelduta daudelako. Zuhaitzen artean pinuak, gastainondoak eta haritzak daude. 8 ustelduta eta 18 bat ikututa daude. Ikututa daudenak oraingoz ez dituzte botako eta hobetzen saiatuko dira.



Myriam Beltran de Heredia atxabaltarra eta **Jose Mari Hernandez** arrasatearra Dorletan ezkondu ziren urriaren 15ean. Bazkaria Gure-Ametsa jatetxean izan zuten eta ezkon-bidaian Sri-Lankan eta Maldibasetan egon dira. Zorionak, bikote!

IZEN PROPIOAK

● Enplegua Sustatzeko Programaren barruan, honako 5 pertsona hauek kontratatu dituzte 6 hilabetetarako: **Iñigo Arregi** bergararra 25 urte, Delineante lanposturako; Ingenieritza Teknikoa ikasi du. **Iban Bolinaga** arrasatearra, 27 urte, Galdegarin lanposturako; Mekani-ka ikasi du. **Eba Ortuzar** arrasatearra 25 urte, emakumearen egoera sozioekonomikoa aztertze-ko Teknika-ria, Pedagogian dago lizen-ziatua. **Gotzon Arzelus** bergararra, 21 urte, Herriko baserri-auzoen inguruko bideak aztertze-ko Teknikaria, Enpresa eta Jarduera Turistikoan teknikoa da. **Jon Ugarte** oiñatiarra, 26 urte, Udalaren eremuko lur sailen ego- era eta aprobetxamendu au-kerak aztertze-ko teknikaria; Mendi Injinieritza ikasi du. Hauen guztien kontratuen iraupena 6 hilabetetako- a izango da.

ITSASKI ARRANDEGIA

Arrain freskoa
eta jaki izoztuak

Uribe Auzoa
ARRASATE
Tfnoa: 79 98 94

CE ERRASTI KRISTALDEGIA

Plastiko eta burdinazko hodiak
beirina eta kristalak
akzesorioak

Olarte kalea, 47 behea Tfnoak: 79 22 55 79 14 25

"EDERTU" ileapaindegia



San Andres auzoa
Tfnoa: 79 04 28

Josuk, 21 urte.
Anak, 19.

Duten adinarekin,
bidaiatu egiten dute.
Topera gozaten dute.
Dantza egiten dute.
Proiektuak dituzte.
Presarik gabe bizi dira.
Egunean egunekoa bizi
dute.
Aurreztu eta gastatu
egiten dute.

57 eta 55 urte dituzten
Fermin eta Mirenek
bezalaxe.




55 urtetik gora baduzu eta gehien atsegin duzuna egin nahi baduzu, Euskadiko Kutxaren Super 55 Libreta.

- %5*erainoko U.T.B.a.
- Zerbitzuak, eskaintzak eta atentzio eskusiboak.
- Eta kontsultatzeko doako Zerbitzu Telefonikoa** : 900 555 900 zkia.

Informa zaitetzukurtsal honetan.

*100.000 pta.ko gutxienezko saldotik aurrera, lehen 100.000 pta.k %0,10ean. UTBariburuzko adibideak: 250.000 pta.rako %3,11. 1.000.000 pta.rako %4,61. 5.000.000 pta.rako %5,01. ** Campus Kultur Elkartek kontratataturikoa.

Super 55 Libreta


CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA

ZALDIBAR ZALDIBAR Futbito 94-95 Txapelketa

Babesleak: JMA, Kajoj taberna eta Arrasate Kirolak



Gaizka Olabarrieta

Arbitraiek ez dute onerako biderik hartzen

Epaileen arbitraia txarrak nabarmenak izan dira asteburuan, antolatzailleek esan digutenez aspaldiko txarrenak bizi izaten ari gara. Zer egin arazoa konpontzeko? Antolatzailleek erabaki beharko dute berandu izan baino lehen.

Jardunaldi honetan txapelketako lehen lesionatua agertu da: Jon Etxebarria Elkoro, Pepelus taldekoak izugarrizko zartada hartu zuen Ezkinako Hontzak-en aurkako neurketan eta 6 puntu eman dizkiote okotzean. Aste batzutan, beraz, ikusle moduan parte hartu beharko du

Zaldibarren. Bestalde, Insert Cointek eta Arrasate Kirolakek elkarren kontra jokaturako neurketan iskanbila sortzeko ahaleginak egin zituzten Arrasate Kirolakekoek. Horren aurrean, antolakuntzakoek Isaias Carrasco jokalariai partidu bateko zigorra ezartzea erabaki dute. Jardunaldiko golei gainbegirada emanez, guztira 290 sartu dira. Gol gehien A taldean sartu da: 80 gol. D taldean 75 eta B eta C taldeetan 68 eta 67 gol. Gol gehien Uglys Txinatos taldeak sartu du (12 guztira), jarraian Motz dator 11 golekin.

UGARTE


Industri
hornidurak

Arrasate pasealekua
Tfnoa: 79 83 96 / 79 23 00
Telefax: 793412

● Txitxinpe ●

Berezitasunak:
Kafea, ardoa, urdaitegia,
fruitu lehorrak

Arrasate Pasealekua, 33
ARRASATE Tfnoa: 79 67 76



ERAIKUNTZAK

Olarte, 30 etxabea.
Tfnoa: 79 77 11
Faxa: 79 77 11
ARRASATE
Postakutxa: 118

Futbito Txapelketa

A taldea

	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irab.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	Guzt.
BUKANAK	6	6	0	0	29	17	12
SALENKO	6	5	0	1	34	14	10
ZULOAK	6	4	2	0	26	17	10
FOSFOROS	6	4	0	2	20	10	8
CER. LEINZ	6	4	0	2	31	14	8
ADELAIDA	6	3	2	1	21	15	8
KRISKIBALDA	6	4	0	2	19	21	8
HIREI	6	3	1	2	38	20	7
FRAGUEL GOL	6	3	1	2	22	17	7
ARRASATE K	6	2	2	2	28	26	6
ZOTZ	6	2	2	2	14	15	6
LOS DALTON	6	3	0	3	23	28	6
EZTANDA	6	1	3	2	15	33	5
ATERPE	6	2	1	3	17	19	5
GANBELAS	6	1	2	3	18	17	4
ASTOEN VILLA	6	1	1	4	26	32	3
STRAUSS	6	1	0	5	20	28	2
INSERT COIN	6	1	0	5	17	33	2
ILUNA TAB.	6	1	0	5	12	35	2
BAYER LE.	6	0	1	5	12	31	1

B taldea

	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irab.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	Guzt.
TRIKITI	6	6	0	0	33	8	12
UGLYS	6	4	2	0	48	14	10
PEPELUS	6	5	0	1	37	13	10
TXEYENEX	6	5	0	1	33	12	10
LOS DIMY	6	4	1	1	37	15	9
NUEBO TAB.	6	4	1	1	25	16	9
S. UGARTE	6	3	2	1	28	11	8
TOTEM	6	3	1	2	27	16	7
PETROLEROS	6	3	1	2	25	15	7
NO COMENT	6	3	1	2	17	27	7
BERANGO	6	3	0	3	16	18	6
PUB PEOPLE	6	3	0	3	22	31	6
ANBOTOSTE	6	2	1	3	19	23	5
DANOK L.	6	0	3	3	17	23	3
ARRASATE ZOO	6	1	1	4	16	33	3
MONTERREY	6	1	1	4	15	33	3
EZKINAKO	6	1	1	4	10	31	3
TOVARITX	6	1	0	5	8	31	2
LA BANDA	6	0	0	6	13	43	0
ORKATZ	6	0	0	6	11	44	0

C taldea

	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irab.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	Guzt.
IRATI STS	6	6	0	0	37	10	12
A. MURU	6	5	0	1	31	9	10
LORATEGI	6	5	0	1	22	13	10
EQUUS	6	5	0	1	34	14	10
ORLANDO	6	4	0	2	28	13	8
NABARROS	6	4	0	2	24	20	8
KE OXTIAS	6	4	0	2	27	25	8
KOKA JUNI.	6	3	1	2	16	16	7
EXCA. LETE	6	3	0	3	17	11	6
PERRAHOTSA	6	3	0	3	19	17	6
ARTZABKOS	6	3	0	3	19	19	6
FRANTZISKA	6	3	0	3	19	19	6
JOTAKABAU	6	1	3	2	15	24	5
F. IMAGEN	6	1	2	3	20	24	4
BODISCA	6	2	0	4	18	28	4
BANEUKO	6	1	1	4	7	16	3
TXOKO TAB.	6	1	1	4	10	29	3
POTROSORRI	6	1	0	5	17	32	2
LEYA	6	1	0	5	15	37	2
D.K.B	6	0	0	6	11	30	0

D taldea

	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irab.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	Guzt.
ARGI IBILI	6	5	0	1	33	11	10
MIKELOS	6	5	0	1	34	16	10
SURCOS	6	5	0	1	38	18	10
OJO AVISORE	6	5	0	1	30	16	10
MSM INGENIER.	6	4	1	1	30	11	9
D.A. IRIZTU	6	3	2	1	31	18	8
LOS HEREDIA	6	4	0	2	22	22	8
ANORTHOSIS	6	4	0	2	19	17	8
KAKAJAURI	6	3	0	3	23	20	6
ALTZA PORRU	6	3	0	3	16	14	6
LAUTHERBRU	6	3	0	3	27	28	6
SOKOAKOAK	6	2	2	2	15	21	6
MOTZ	6	2	1	3	31	19	5
BORROCK'N	6	2	1	3	20	20	5
B.Z SIST	6	2	1	3	12	18	5
TRONKOTEAK	6	1	2	3	19	33	4
SUKAR	6	1	0	5	17	32	2
RESAKAS	6	1	0	5	15	39	2
ELISABETH	6	0	0	6	9	36	0
TEODOLITO	6	0	0	6	10	42	0

**I
R
T
A
B
E
R
N
A**

Ferrerias kalea
ARRASATE
Tfnoa: 79 56 11

Baster-alde



Jatetxea


Denboraldiko platerak, giro onean

Galartza auzoa

ARETXABALETIA

Tfnoa: (943) 79 24 58

ARRASATEN



**Umeentzako
oinetakoak
eta
berezitasunak**

Zerkaosteta, 15
Tfnoa: 79 61 13



Zapatuan Bayer Leintz eta Straussen arteko partidua bizia izango da oso, talde biak kuadrila berekoak dira eta. Los Heredia eta Mikelosen artekoa ere ez da okerragoa izango. Domekan, berriz, bi neurketa gomendatzen dizkizuegu: Los Dalton eta Zuloaken artekoa batetik, eta Lorategi eta Irati STSen artekoa bestetik.

BELARRIRA

◆ **Berriro ere.** Haritz Azkarraga antolatzailea lokartu egin zen, berriro ere, domekan eta ordu erdi beranduago hasi zen jardunaldia. Haritzek dimisioa eskatu du baina antolakuntzakoek ez diote onartu. Iratzargailu berria erosi beharko diogu...

◆ **Babajana.** Itxura denez, taldeen arteko babajanak modan jarri dira Zaldibarren. Los Heredia eta Kakajauriren arteko neurketan babajana zegoen jokuan eta Los Herediakoak 5-1 nagusitu zirenez, Kakajauriri tokatu zitzaion poltsikoa hustu eta aurkariei babajana ordaintzea. Zapatuan Txanpi bodegoian izan zuten babajana. Los Heredia taldekoek, dagoeneko, bi asteburutan jarraian irabazi dute platerkada bana baba.

◆ **Izen aldaketa.** Orain arte Butankak izenarekin ezagutu dugun taldeak babeslea aurkitu du. Hemendik aurrera, "MSM Ingenieria Integral" izenez ezagutu dugu.

EMAITZAK

A taldea

- Bayer Leintz 1 - Aterpe 3
- Kriskibalda 5 - Strauss 4
- Astoen Villa 3 - Iluna Taberna 5
- Bukanak 6 - Cerveceria Leintz 5
- Salenko y Konpañia 5 - Zotz 2
- Fosforos 3 - Hirei 1
- Los DALton 2 - Fraguel Gol 7
- Ganbelas 3 - Zuloak 5
- Insert Coin 5 - Arrasate Kirolak 6
- Adelaida Haizea 5 - Eztanda egin arte 1

B taldea

- Los Dimy 4 - Berango Sukaldeak 1
- Petroleros 7 - Monterrey Taberna 1
- Pepelus 9 - Ezkiñako Hontzak 1
- Orkatz 1 - Uglys Txinato 12
- Anbotoste 2 - Txeyenex 3
- No Coment 2 - Suministros Ugarte 1
- Arrasate Zoo 2 - Totem 5
- Tovaritx 1 - Pub People 4
- Danok lagun 2 - Trikiti 5
- La Banda 2 - Nuevo Taberna 3

C Taldea

- Perrahotsa 3 - Ke Oxtias! 4
- D.K.B 1 - Autos muru 6
- Nabarros 3 Potrosorri 2
- Lorategi Potroak 5 - Equs 3
- Bodisca 3 - Irati S.T.S 7
- Leya 1 - Orlando Piratas 8
- Artzankos Udalaiz 5 - Baneuko 0
- Excavaciones Lete 1 - Foto Imagen 3
- Txoko TABerna 5 - Koka Juniors 2
- Jotakabau 3 - Frantziskarre 2

D Taldea

- Borrock 'n Roll 1 - Tronkoteak 2
- Diego Antonio Iriztu - 3 MSM 3
- Sokoakoak 5 - Altxa Porru 2
- Elisabeth 2 - Motz 11
- Los Heredia 5 - Kakajauri 1
- B.Z Sistemas 1 - Mikelos 5
- Teodolito 3 - Resakas 6
- Ojo Avisore 6 - Sukar 6
- Anorthosis Agudah 3 - Argi Ibili 1
- A.C Surcos 7 - Lautherbrunnen 4



- Garbitasun orokorrak eta mantenimentua: etxebizitzak, atariak, dendak, bulegoak, kristalak, etab.
- Edozein zoru motari dizdira ateratzea.

San Juan, 14 etxabea Tfnoa: 71 48 45 ESKORIATZA



INFORMATIKA ZERBITZUAK

LORAMENDI, 7 BEHEA ARRASATE, ☎ 77 12 33


- NEURRIRA EGINDAKO PROGRAMAZIOA
- EKIPAMENDU INFORMATIKOAK
- ZERBITZU TEKNIKOAK

What's PET?

- a - an animal
- b - an exam ✓
- c - a girlfriend

All levels

University of Cambridge
Local Examinations Syndicate



Erdiko kale, 37

Tfnoa: 79 90 36

ASTEBURU HONETAN

Larunbata 19

Zaldibar

- 8.50 Danok Lagun - Nuebo Taberna
- 10.00 Elisabeth - Kakajauri
- 11.00 Txoko Taberna - frantziskaner
- 12.00 Ganbelas - Arrasate Kirolak
- 13.00 Leya - Baneuko
- 14.00 Arrasate Zoo - Pub People
- 15.00 Insert Coin - Eztanda egin arte
- 16.00 No Coment - Totem
- 17.00 Kriskibalda - Iluna Taberna
- 18.00 Bodisca - Orlando Piratas
- 19.00 Bayer Leintz - Strauss

Iturripe A

- 10.00 Nabarros - Equs
- 11.00 BZ Sistemas - Resakas
- 12.00 Borrock'n Roll - MSM
- 13.00 Los Dimy - Monterrey Taberna
- 14.00 Diego Antonio iriztu - Altza Porru
- 15.00 Adelaida Haizea - Aterpe
- 16.00 Los Heredia - Mikelos
- 17.00 DKB - Potrosorri
- 18.00 Jotakabau - Ke Oxtias!

Iturripe B

- 12.00 Salenko Y Konpañia - Hirei
- 13.00 Teodolito - Sukar
- 14.00 Artzankos Udalaiz - Foto Imagen
- 15.00 Astoen Villa - cerveceria Leintz
- 16.00 Sokoakoak - Motz
- 17.00 Fosforos - fraguel gol
- 18.00 Ojo avisore - Argi ibili

Igandea 20

Zaldibar

- 8.50 AC Surcos - Tronkoteak
- 10.00 Orkatz - Txeyenex
- 11.00 Los Dalton - Zuloak
- 12.00 Lorategi potroak - Irati STS
- 13.00 Berango Sukaldeak - La Banda

Iturripe A

- 10.00 Tovarixt - Trikiti
- 11.00 Bukanak - Zotz
- 12.00 Petroleros - Ezkiñako Hontzak
- 13.00 Anorthosis - Lautherbrunner

Iturripe B

- 10.00 Petrahotsa - Autos Muru
- 11.00 Pepelus - Uglys Txinato
- 12.00 Excavaciones Lete - Koka Juniors
- 13.00 Anbotoste - Suministros Ugarte.

Sorpresak talde desberdinetan

6. jardunaldi honek eman du zer esana eta sorpresak ere egon dira. A taldean Bukanak taldea dugu aurreneko postuan 12 punturekin. Jokaturako 6 partiduetatik guztiak irabazi ditu; azken jardunaldian ere 6-5 irabazi zion Cerveceria Leintz taldeari; bigarren sailkatua Salenko y Konpañia da 10 punturekin. B taldean ezuste galanta ematen ari da No Coment taldea. Talde umila izan arren, 5. jardunaldian Txeyenexi irabazi egin zion eta jokatu berri den jardunaldian Suministros Ugarteri 2-3 irabazi dio. Talde sendoen aurrean kukiltzen ez den taldea dugu. Une honetan, 10. tokian dago sailkatua, 7 punturekin. C taldean Txoko

tabernak denboraldiko lehen neurketa irabazi du, Koka Juniors taldearen kontra; 5-2 izan da azken emaitza. Multzto honetako talde errebelazioa Ke Oxtias! dugu. Denboraldi ona egiten ari da eta 7. tokia betetzen du 8 punturekin. D taldean ere badugu zer kontatu. Esaterako, Argi Ibili taldeak, lehen postuan sailkatua dagoenak, denboraldiko lehen porrota jaso zuen Anorthosisen kontrako neurketan; partidua domekan jokatu zen. Bestalde, Resakasek lehenengo bi puntuak igo ditu markagailura Teodolitori 3-6 irabazi eta gero. Multzto honetan aurreneko 4 postuetan ditugun taldeak berdindurik daude puntutan.



URONDO
elektrizitatea

- * Elektragaiak
- * Argiztapena
- * Instalazioak
- * Bobinaketak
- * Automatismoak
- * Proiektuak

Musakola auzoa, 26. Kataide Industrialdea 5. Pabiloia. 214 postakutxa
Tfnoak: 79 78 15 / 77 10 42 Faxa: 77 14 76
ARRASATE

Jesus Uriarte, ACOGIko lehendakaria

“Dendabako herriek ez dute bizitzarik”

Apurka-apurka dendari txikiak batuaz eta profesionalizatuz doaz. Benetako merkatarari bihurtzen ari dira dendariak eta supermerkatu handiei aurre eginez, bizi izaten jarraitu nahi dute. Horren adibide da, ACOGIk (Gipuzkoako Merkarien Elkarteak) antolatuta merkataritzari buruz egin zen ihardunaldia, urriaren erdialdean. Gipuzkoako 400 merkatarirekin batera Arrasateko hogeitamaren batek ere parte hartu zuen ihardunaldian, kanpoko esperientziak ezagutu eta etorkizunean zer egin eztabaidatzeko.

-Zertaz egin zen berba ihardunaldian?

Merkataritzaren inguruko esperientzien berri izan genuen batez ere. Batetik Frantziako egoera azaldu ziguten. Estatu hartan dagoeneko azalera handiko supermerkatuen hazkundea geratu egin da, fenomeno horrek jendea herri eta hirietatik aldegitara eragin du eta. Horregatik, Frantziako herri asko “fantasmak” dira, hau da, supermerkatu handien inguruan mugitzen da jendea eta herriek bizia galdu dute. Orain, berriz, herriak berpizteko neurriak hartzen ari dira.

Kataluñan ez da horrela-


korik gertatu baina azalera handiko komertzioei zelan aurre egin dieten jakin genuen. Bartzelonan, Sants kalea peatonalizatuz eta inguru guztia edertuz, kale horretako merkatarari txikiak aurrera irten dute.

-Arrasateko esperientzia ezagutu zuten gainontzeko merkatariek?

Bai, Jose Mari Saiz de Bikuñak Arrasateko merkataritzari buruz egin duen ikerketaren berri eman zuen. Ikerketa horrek partehartzailen arreta erakarri zuen, Euskadi mailan horrelakorik egin barik zegoen eta. Azterketa horretan herriari ematen zaio garrantzia, dendabako herria bizitzabako herria da eta. Horregatik, zerikusi handia du herrietako erdikaldeak berreskuratzeko eta hirigintza aldetik politikak egiteak. Hirigintza komertziala egitea deitzen zaio horri.

-Merkatariorik, esperantza handia jarri duzue zuen sektorearengan.

Industria eta zerbitzuen sektoreak parekatuaz doaz. Industriaren sektoreak garrantzia handiagoa izan du Arrasaten orain gutxi arte, baina orain sektore biak parekatuz doaz eta industrian %50ak lan egiten badu, zerbitzuetan dagoeneko %40a ari da lanean. Zerbitzuek lanpostuak sor ditzakete eta industriarentzat, berriz, zai-



lagoa da lanpostuak sortzea. Horregatik INEM, ospitalea, hazienda... bezalako zerbitzuak herrian edukitzea garrantzitsua da inguruko jendearen joan-etorria eragiteko. Herrian zenbat eta zerbitzu gehiago eduki, inguruko jende gehiago etorriko da. Bide batez, herritik bueltatxo bat egin dezaten bilatzen badugu, herrirako aberastasuna bultzatzen ari gara eta era horretan, lanpostuak sortuko dira merkataritzan.

-Merkataritzaren kulturak badu pisurik Arrasaten?

Oraindik errotu barik dago merkataritzaren kultura. Jendea ez da konturatzen merkataritzak izugarriko garrantzia duela eta Udaltxean ere ez dira nahikoa ohartu. Egitemu Orokorren aurrerapenean, adibidez, INEM bezalako zerbitzuak ia herritik kanpo kokatu dituzte eta zerbitzuek jendea erakar dezaketela kontutan

izanda, garrantzitsua da zerbitzu horiek erdikaldean egotea. Esan bezala, kultura hori sustraitu barik dago baina apurka-apurka konturatuz doaz.

-Herriko merkataritza indartzeko neurri batzuk aipatzen ditu Arrasaterako egin den ikerketak. Hasi zarete neurri horiek aplikatzen?

Momentu honetan, zapatu arratsaldeak edukiz zelan bete pentsatzen ari gara. Arratsaldeko seiak edo zazpiak arte jendeak ez du kalera irteten, aparteko ezer ez da egoten eta. Horregatik, herriko kultur eta kirol taldeekin harremanetan jarri gara, jendea erakarri asmoz zapatu arratsaldetan zein ekintza egin daitzkeen pentsatzeko.

-Arrasateko konpeti dezake Gasteizekin?

Inguruko herrietako jendea erakartzen ahalegindu behar dugu. Esan bezala, horretarako herri atsegina antolatu behar dugu. Zerbitzuen bidez Deba Garaiko buru izatea lortu behar du Arrasatek.

● **“Zerbitzuen bidez Deba Garaiko buru izatea lortu behar du Arrasatek”**

Abiadura Handiko Trena: gero eta gertuago

Maria Agirre

Beharrezkoa ez zela eta, orain dela urte dexente pasa zen trena azken aldiz gure inguruetatik. Hogeitasei urte beranduago trenaren beharra ezinbesteko jotzen da. Hala ere, martxan jarri nahi den tren moetak ez du lehengoaren antzirik izango. Abiadura Handiko Trena (AHT) izenez ezaguna den trenak, orduko 250 kilometroko abiadura hartuko du eta Gasteiztik Bilbora, adibidez, 27 minututan eramango gaitu. Hala ere, batzuentzat Euskal Herriaren modernizatorako ezinbestekoa den azpiegitura eraikitzea esan nahi duenak, beste askorentzat azkenaldiko txikizio ekologiko handiena egitea ekarriko du.

Euskal Herrian AHT eraikitzearen asmoa aspalditik dago Europako Ekonomi Elkartearen planen barruan. Orduetik, Euskal Gobernuan egon direnek lehenbait lehen azpiegitura hori eraikitzen hasteko beharra azaldu dute baina hasieran 96rako trenbidea eraikitzen hastea aurrikusi bazen ere, horretan hasteko zertxobait gehiago itxaron beharko da. Hala ere, Euskal Herriko AHT nondik pasatuko den erakusten duten hasierako planoak eginak daude. 1:5.000 eskalako planoak bukatuta dago eta dagoeneko 1:1.000 eskalakoak egiten ari dira. Arrasateko udaletxera ere beste udaletxe ba-

tzetara bezala, heldu zen memoria-laburpena, azken horiek ingurugiro inpaktua azter dezaten.


Hurrengo lana, aurre-proiektua egin, jendaurrean aurkeztu eta ingurugiro inpaktuari buruzko deklarazioa edukitzea izango da. Deklarazio hori egin ondoren, azken proiektua idatzi eta obrak kontratatzea baino ez da faltako.

ZER DA AHT?

Ezaugarriei begiratzuz gero, ez dago AHT tren klasikoekin konparatzerik. Hemen eraiki nahi den trenbidea bidaiariak eta merkantziak garraiatzeko egokituak diren, abiadurari dagokio-

E

**zaugarriei
begiratzuz AHT ez
dago tren
klasikoekin
konparatzerik.**



Trena lurrazpitik ibiliko da batez ere.


nez bidaiarien trenak 250 Km/h abiadura hartuko du eta merkantzienak; berriz, 120 Km/h. (Sevillatik Madrilera doan AVE-a bidaiarientzako bakarrik denez, 330 Km/h abiadura hartzen du). AHTean Gasteiztik Bilbora joateko 27 minutu beharko genituzkela esan nahiko luke horrek eta Gasteiztik Iruna joateko 38 minutu. Horrenbesteko abiadura hartzeko energia asko behar da, jakina, energia elektriko kopuru handia eskatzen du trenak.

Bestalde, segurtasun neurriengatik alboetara tokiak behar izaten duela eta, AHTren estruktura autopista-arena baino zabalagoa izaten da eta mantenimendua segurtatzeko, pistak ere egin behar dira. Trenbidea gainera, ezin du ezerk gurutzatu. Horregatik, ibilbideak toki askotan hesiz inguratuta egon behar du eta tren azkarraren bideak, zuzena eta kurba eta aldapa gutxikoa izan behar du.

ALDEKOAK ETA KONTRAKOAK

Horrelako gaiekin gertatu ohi den bezala, AHTren alde eta kontra dauden argumetuak dagoeneko kalean daude. Proiektuaren bultzatzaileek krisi ekonomikotik irteteko eta Euskal Herria modernizatzeko ezinbestekoa dela esaten dute; aurka dauden ustez egungo arazo ekonomiko, sozial eta ekologikoak okertu egingo lirateke AHT eraiki ezker.

Trenaren ibilbidearen %51 lurrazpitik igaroko denez, horrek lurra zulatzea ekarriko du derrigorrez. Ekologisten esanetan, zulaketatik ateratako materialak botatze-



ko zabortegiak sortuko lirateke eta ekosistema guztia aldatu egingo litzateke. Alde dau-denek ostera, trenna lurrazpitik sartzea ingurugirorako inpaktu gutxien ekarriko duen neurria dela uste dute.

Puntu horietaz gain, energia elektrikoaren gehikun-


tzak eta barrera efektuak ere kezkatzen ditu ekologis-tak. Energia elektrikoa behar izanak, zentral nuklearren ugaltzea bultzatuko duela eta trenbidea ezin gurutzatu izan-ak ekosistemaren zatiketa ekarriko duela argudiatzen dute. Bestalde, tren azkarrak harremanetan hiriburuak bakarrik jarri nahi direnez (trenna ez da herrietan geratu-ko), horrek ere hainbat kezka sortarazi du. Batzuen ustez herriek garrantzia galduko lukete eta jendeak hiriburueta-ara aldegingo luke bizi iza-tera.

EUSKAL Y-A

Trenak Euskal Elkarte Autonomoko hiru hiriburueta-tatik barrena egingo duen ibilbideak Y grekoaren itxura duela eta, Y izenez bataiatu dute hemengo trenbide sarea.

E.Hko lurrazalean 443 Km-tako ibilbidea egingo luke. Horietako 180 Km Y-ari dagozkionak dira, beste 192 Km zati nafarrari eta azke-nik 71 Km Lapurdiri.

Erakusgai dagoen Arra-sateko Egitamu Orokorraren aurrerapenean ikus daitekeen moduan, hiru hiriburuetaruntz mugituko liratekeen trenen lotura edo ardatza Kobate inguruan egongo litzateke. Puntu horretan Donostiatik datorren trenna, Gasteizeruntz joango dena eta Bilbora joan-go den elkartuko lirateke. Bestalde, Arrasate eta inguruak zeharkatzean trenna batez ere lurrazpitik pasako litzate-ke eta Udalaizetik barrena, 4 Km-ko bi tuneletatik eta 6'5 Km-tako beste batetik iga-roko litzateke. Egitamu Oro-korrean AHTri buruzko erre-ferentzia orain dela urte bat-zuk egindako proiektuan oinarrituta egin bada ere, trenna kobate ingurutik pasatzean Lezetxiki eta beste koba bat-zuk ikutuko liratekela ikus-tean, Arrasateko Udalak ale-gazioa bidali zuen. Horretaz gain herritik ere egin da beste iradokizunik. Trenna Deba Garaitik igaroko denez, baina printzipioz geltoki barik, Deba Garaiko Mankomuni-tateak geltoki baten aukera ez baztertzeko eskatu zion Jaur-laritzari.



Orain dela 26 urteko trenna

Mende erdiz bidaiariak eta merkantziak garraiatzen ibili ondoren, urtean 30 miloiko galerak izaten zituela eta, Espainiako Garraibide Ministeritzak hala erabakita 1967ko abenduaren 31n egin zuen Gasteiz-Mekolalde ibilbidea egiten zuten trenak azken bidaiak.

Union Cerrajerarako ikatza eta burdina ekartzea garrantzitsua zela eta, 1914an Gatzaga-Arrasate bitarteko trenbidea eraikitzen

hasi ziren eta gero Mekolalderaino iritsi zen. Hasieran ikatz lokomotorak erabili ziren 1938an sare elektrifikatua inauguratu arte.

Garraibide hartan Arrasatek Gasteiza bidaiatzeko aukera izan zutenek trenaren irudi erromantikoa dute gogoan. Ibilbidean zehar pasaia ederrak ikusten zirela eta, plazerra ematen ei zuen trenean ibiltzeak. Zenbaterik eskertuko ote lukete berriz ere burdinezko gurpildun haren zarata entzutea!

Jabi Mentxakak maratoiko marka onena

Behobia Donostia maratoia jokatu zen domekan. Egurraldi eguzkitsua lagun, jende asko hurbildu zen ibilbidera eta Irundik Donostiako Bulebarreraino jendez lepo egon zen errepidea. 20 Kilometroko maratoia Diego Garcia azkoitiarrak irabazi zuen, horretarako 1'01'34" denbora erabiliz. Emakumeetan helmuga zeharkatzen lehena M^oLuisa Irizar izan zen 1'12'26" denborarekin. Arrasatearren parte hartzea ere ugaria izan zen eta etxeko korrikalarietortutako markak ez ziren makalak izan. 7.800 korrikalari baino gehiagok hasi eta bukatu zuten froga. Arrasateko atletetan Jabi Mentxaka izan zen helmuga pasatzen azkarrena, 1'08'08" denborarekin; sailkapen orokorrean 83. postuan bukatu zuen. Gizonezkoetan bigarrena Mikel Hierro izan genuen; erabilitako denbora, 1'17'43", 306 postua bete zuen. Hirugarrena Lorenzo Alonso: 1'19'57" denborarekin 429. tokia bete zuen. Jose Luis Arroiabe 1'23'26" denborarekin arrasatearren artean laugarren helmugaratu zen eta Josu Garcia Rodriguez 1'24'34" denborarekin boskarrena izan zen. Emakumetan, ostera, lehena Pili Valdezate 1'33'46" denborarekin: 2321. tokian bukatu zuen maratoia. Mari Jose Gil izan



Jabi Mentxaka izan da Arrasateko korrikalari azkarrena.

zen bigarrena eta 1'39'30" denbora erabili ondoren, 3485. tokian sailkatu zen. Hirugarren Antonia Patxo

1'40'49". Ondoren Miren Bengoak zeharkatu zuen helmuga 1'49'08" denborarekin eta Mari Beltran izan zen boskarrena 1'56'44" denborarekin. Bai emakumezkoetan eta baita gizonezkoetan ere, 5 lehenak jarri ditugu guztiak jartzea ezinezkoa zaigu eta. Bestalde, gogoratu behar da arrasateko presoen izenean ere, egin zutela korrika zerbait arrasatearrek. 20 kilometro luze horiek, egiten ausartu ziren guztiei zorionik beroenak.

.....

**Maratoiaren
30. edizion
arrasatearrek ez
dute errekor
berririk lortu.**

PENALTIAK

● Urbina Maltzaga saskibaloitaldeak Viña Costeira taldearen kontra jokatu du domekan eguerdiko 12etan. Arrasateko taldeak azken bi asteburutan kanpoan jokatu eta neurketetan ez du zorte handiegirik izan. Beraz, gorako bidea hartzeko baliozgarria izan daiteke domekako neurketa. Bi taldeak nola dauden sailkatuta ikusiz gero, partidu zaila dirudi; Viña Costeira 8. postuan dago sailkatua 10 punturekin; 3 partidu irabazi egin ditu eta 4 galdu. Urbina Maltzaga 13. dago, 2 neurketa irabazi eta 5 galdu ondoren. Domekan Iturripen eguerdiko 12etan, etxeko taldea ikusteko eta etxeko taldeari laguntza morala emateko aukera paregabea izango dugu. Ea bada, Iturripen, goraino betetzen dugun.

● 3. mailako Mondra taldeak ez du partidu makala datorren domekan. Amorebieta taldearen kontra neurtu beharko ditu indarrak. Mondra 7. postuan dago 13 puntu eta 3 positiborekin eta Amorebietak bi puntu gehiago besterik ez du. Partidua interesgarria izan daiteke oso eta garai-pena etxean geratzeko aukerak ere badaude.



Sikol

- Oihaletan, kalitatea prezio onenean.
- Jantziak neurrira egiten dira.

Olarte, 31 ARRASATE Tfnoa: 79 89 32

**TXOKO
TABERNA**
Gure berezitasunak pintxo eta mokau gozoak

Trial txapelketa Udalan

Trial txapelketa jokatu da Arrasateko Udala auzoan domekan. Arrasate motozale elkarte, urte batzutan desargerturik egon eta gero, duela urtebete jarri zen berriro lanean. Arduradun berri hauek trial txapelketa antolatzen duten lehen aldia da. Udalan ikusteko aukera izango dugun trial txapelketa Euskadiko txapelketarako baliagarria izango da eta motozale onenetsuenak egongo dira bertan. Partehartzaile guztiek federatuta beharko dute egon. Frogak izango dituen ezagurri batzuk aipatzekotan, ibilbideak 8 zona izango ditu eta 3 buelta eman beharko dizkiote partehartzaileek. Ibilbideak kilometro bat izango du gutxi gora behera eta zonalde desberdinetan egiten den lana bakarrik da puntuagarria. Zortzi zonalde horietan, oztopo naturalak egongo dira eta punturik ez galtzeko,



Motozaleen trebezia egongo da jokuan Trial txapelketan.

ezin izango dute hankaz lurra ikutu. Hanka batekin ikutzen badute puntu bat gutxiago, bi bider bi puntu eta jausten badira 5 puntu galduko litzukete; motorretik jaustea da froga hauetan egin daitekeen akatsik handiena. Partehartzaileek ibilbide guztia motor batekin egin beharko dute, ezin da motorrik aldatu. Honez gain, partaideek aseguruia izango dute; antolakuntzak duen aseguruia zonalde desberdinetan zeozer gertatu ezkerok litzateke baliagarria baina gainontzeko ibilbidean arazoren bat gertatu ezkerok, piloto bakoitzaren aseguruia egingo da kargu. Motor gainean denetik egiten motozale trebe eta ausar hauek ikusi ahal izango ditugu domekan goizeko 10etan Udalan. 30etik 40 partehartzailetara espero dute antolatzaileek baina tartean ez da arrasatearrik egongo.

EMAITZAK

Futbola
3. Maila: Zaila 0 Mondra 0
 Emakumeak: Mondra 3 Antoniano 0
2. Erregionala: Antzuola 2 Mondra 5
Jub. Ohorezko Liga: Mondra 7 Union Txiki 3
2. Jubenilak: Arrasate 1 Gazteak 1
Lehen Kadeteak: Aurrera 6 Arrasate 2
2. Kadeteak: Ilintxa 1 Arrasate 4
 Infantilak: Arrasate 0 UDA 1
Hurrengoak:
3. Maila: Mondra - Amorebieta. Igandea 3.30etan. Atxabalpen
Emakumeak: Aloñamendi - Mondra. Larunbata 4etan. Ibarrran
2. Erregionala: Mondra - Lagun Onak. Larunbata 3.30etan. Atxabalpen
Jub Ohorezko Liga: Amaro - Mondra. Larunbata. 3.30etan. Usabalen
Jubenilak: Bergara - Arrasate. Larunbata. 5.15etan. Ipintzan.
Lehen Kadeteak: Arrasate - Ber-

gara. Igandea. 12etan. Atxabalpen.
2. Kadeteak: Arrasate - Gazteak. Igandea 10etan. Atxabalpen.
Infantilak: Beasain - Arrasate. Larunbata. 11etan. Olabarrian.

Saskibaloia

Eba liga: Caja Cantabria 70 Urbina Maltzaga 68
Juniorkak A: Urbina Maltzaga 66 LA salle 79
Juniorkak B: Askatuak 46 Urbina Maltzaga 81
Senior Emak: Atl. S. Sebastian 44 Urbina Maltzaga 47
Kadeteak A: Zarautz 56 Urbina Maltzaga 68
Kadeteak B: Urbina Maltzaga 52 Goierri 38
Kadeteak Emak A: Gros 40 Urbina Maltzaga 38
Kadeteak Emak B: Andraitz 67 Urbina Maltzaga 17
Hurrengoak:
Eba Liga: Urbina Maltzaga - Viña Costeira. Igandea 12etan. Iturripen.

Seniorkak S-23: Urbina Maltzaga - Ordizia. Larunbata 4etan. Musakolan.

Juniorkak A: Urbina Maltzaga - Iraurgi. Igandea 11.30etan. Musakolan.

Juniorkak B: Aralar - Urbina Maltzaga.

Seniorkak Emak: Urbina Maltzaga - Alde Zaharra. Larunbata 6etan. Musakolan.

Kadeteak A: Urbina Maltzaga - Asesoría Alfis. Larunbata 10etan. Musakolan.

Kadeteak Emak A: Urbina Maltzaga - Mary Ward. Larunbata 12etan. San Vitorren

Kadeteak Emak B: Irurok - Urbina Maltzaga.

Eskubaloia

Lehen maila: Ereintza 23 Arrasate 18
Lehen territoriala: Umetako 20 Arrasate 11
Hurrengoak:

Lehen maila: Arrasate - Casablanca. Larunbata 6.30etan. Iturripen.
Lehen territoriala: Arrasate - Bidebieta. Larunbata 4etan. Iturripen

Futbitoa

Lehen maila: Gernika 6 Arrasate 4
Arabako territoriala: Arrasate 3 Calasanz 8

Hurrengoak:
Lehen maila: J. Claudio - Arrasate. Larunbatean 5.15etan. Barakaldon.

Arabako territoriala: Bar Marino - Arrasate. Larunbata 4.15etan. Abetxukon.

Rugbya

Lehen maila: Sestoa 10 Arrasate 24

Jubenilak: Arrasate 0 Ordizia 20
Hurrengoak:

Lehen maila: Arrasate - Elorrio. Larunbata 4.15etan. Garagartzan.
Jubenilak: Arrasate - Eibar. Larunbata 3etan. Garagartzan.

Pilota

Kadeteak: Arrasate 22 Billabona 15

Jubenilak eskuz binaka: Arrasate 22 Anoeta 10

Juniorkak: Azpeitia 22 Arrasate 12
Nagusiak eskuz binaka: Deba 18 Arrasate 12

Nagusiak eskuz binaka: Deba 3 Arrasate 22
Hurrengoak:

Jubenilak eskuz binaka: Arrasate - Lazkao. Larunbata 10.30etan. Iturripen.

Juniorkak: Arrasate - Eskoriatza. Larunbata 10.30etan. Iturripen.

Nagusiak eskuz binaka: Arrasate - Lazkao. Larunbata 10.30etan. Iturripen.

Nagusiak eskuz binaka: Arrasate - Elgeta. Larunbata 10.30etan. Iturripen.

Kadeteak: Zumarraga - Arrasate. Jubenilak eskuz binaka. Idiazabal - Arrasate.

GORKA
 ILEPAINDEGIA
 SOLARIUMA
 Ferrerías, 35 ARRASATE
 Tfnoa: 77 13 78

SHOT!
 grabaciones
 SHOT! grabaciones S.L.
 Araba Etorbidea, 3 - 2. solairua
 Eskatu Pabilioa
 ☎: 943 - 79 37 51
 ARRASATE
 Gipuzkoa


Altzariak
 Diseinua
 Apainketa
M ARENAZA
 Bizkai, 1 ARETXABAETA
 Tfnoa: 79 08 07



Saloiko dantzak Ikastaroa

Tango, vals, Rock & Roll, Fox trot,...

- *1. Maila*
- *Ostegunetan, 20,30 - 22,30*
- *Musakolako Saloian*
- *Matrikula: 10.000 Pta./ 7.000 Pta. ikasle eta langabetuentzat*
- *Izenemateak: Gazte Bulegoan ☎: 77 00 65*



Kaixo lagunak:

Eski denboraldia osaruntsu hasteko, anima zaitetz gurrpil gainean ibiltzen.

Patín aukera zabala eta roleta eskaintza berezia daukazu Loramendin zure zain.

Loramendi Kirolak

PD: Ez ahaztu zure eskiak puntu-puntuan jartzea, zure tailerlean.

Z E R N A H I A G O ?

Maribi Aginalde

“Poxpolin” zapata dendakoa

- Zein koloretako oinetakoak saltzen dira gehien? Urdin ilunak.
- Oinetako txikienaren neurria? 11 zm.
- Nondik dator dendaren izena? Nire haurrari “poxpolin” deitzeko ohitura dut eta horregatik aukeratu nuen izen hau.
- Zer datorkizu burura “intsumisioa” entzutean? Mugimendu hori apoiatzen dut, nahiz eta niri seme-ei oraindik ez zaien txanda heldu.
- Aurten gaztaina erre asko jan duzu? Bai.
- Horoskopoak irakurtzen dituzu? Ez.
- Janari bat? Arraina, rodaballoa, adibidez.
- Badago zerbait heriotzaren ondoren? Nire semetxoa hil zitzaidanetik zalantzez beterik nago.
- Erretzen duzu? Ez.
- Zer moduzkoa da Arrasateko komertzioa? Diru asko mugitzen dela entzun dut, hau da, jendeak erosten duela.
- Zein denda mota falta zaio Arrasateri? Ez dakit, agian ume txikientzako dendak falta dira.
- Negurako oihal bat? Artilea.
- Udarako? Kotoia.
- Argazkiak koloretan ala zuri-beltzean? Koloretan.
- Noiz da zure urtebetetzea? Abenduaren 23an.
- Telebista kate bat? ATB!
- Maiteminduta zaude? Bai.
- Betirako amodioan sinisten duzu? Ez.
- Esaten dutena bezain polita da Donostia? Ez, politagoa izan zitekeen.
- Zein pelikula-genero duzu gustokoen? Melodramak.
- Bizitzak zer ez dizu eman oraindik? Zoriontasun osoa.
- Gizonak, rubioak edo morenoak? Morenoak.



LABURRAK

Institutoko moda desfilea

Institutuko batxilergo 3. mailak, moda desfilea antolatu du zapaturako. Amaia antzokian izango da arratsaldeko 7etan eta 50 bat ikaslek desfilatuko dute pasarelan zehar.

Hilabete daramate desfilea prestatzen eta herri askotako dendetako jantziak lortu dituztela esan behar da. Modeloek barruko erropa, lentzeria, kirolerako erropa eta kaleko erropa erakutsiko dute. Sarrerak Gazte Bulegoan 350 ptan eta takilan 400 ptan egongo dira salgai.

Liburutegiko oparia

Aste honetan zehar, 700 liburu baino gehiago oparitu ditu Udal Liburutegiak. Aspaldian irakurtzen ez ziren liburuak, zahariak daudenak nahiz historikoki desfasatuak geratu diren aleak oparitu dituzte bazkideen artean. Liburutegiko sarrera aretoan erakusgai jarri ziren hiztegi, nobela, entziklopedia, komiki eta beste hainbat liburu motaren artean aukeratu ahal izan dute liburutegiko bazkideek.

Orain dela bi urte ere ekin-tza bera egin zuten, baina aurten liburu gehiago oparitu dute.



Ecuadorreko ordezkaria Lur eta Amaia bidairako txartela ematen.

ECUADOR

Bidaiak

Lurrek eta Amaiak Ecuadorrekin euren aukerako astebukaera bateko, bidaiari zoragarria egingo dute ATBketan lehiaketan irabazle izateagatik. Hurrengoa zu izan zaitezke. Zatoz agudo ATBra eta apuntatu.

Angel Barandiaran eta Alberto Uribetxebarria Gregorianoa gora eta gora

Aretxabaletako kantu gregorianoa abesbatzak aurrerapauso handia eman du. Siloseko monjeek grabatu zuten kantu gregorianoen diska horrek izan duen arrakasta dela eta, diska berri batetan kolaboratu dezaten eskatu die atxabaltarrei Ismael Fernandez de la Cueva musikologoak. Angel Barandiaranek, Aretxabaletako koruko zuzendariak eta Alberto Uribetxebarriak, lehendakariak, guzti hori azaldu digute.



Fernandez de la Cuestarekin talde bat sortu da. Zer asmo dauka talde berri honek epe laburrera?

— Abenduaren 10ean emanaldia eskainiko dugu Salamankan eta otsailaren 18an Madrilera joango gara beste emanaldi batera. Bestalde, EEBBetara joateko asmoa ere badago baina oraindik ezin da ezer aurreratu: Asteburu honetan Ismael bertara joango da horretaz hitzegitera, bertako telebista katai batzuk interesatuta daude eta.

— **Diska bat grabatu behar duzuela entzun dugu...**

— Beno, oraindik ezin da ziurtatu. Antza denez, Siloseko monjeek grabatutako diska horrek sekulako

arrakasta izan du eta hainbat lekutatik beste diska bat kale-ratzeko gogoia dagoela entzun dugu. Beraz, Silosen grabatutako diska famatu horretako zuzendariak, Ismael Fernandez de la Cuestak, beste diska bat grabatzeko asmoa dauka eta horretarako guri eta Gasteizko Samaniego abesbatzari kolaborazioa eskatu digu, berak ez dauka koro propiorik eta. Guretzako oso gonbidapen garrantzitsua izan da, gizon hau Madrilera musika kontserbatorioko katedrati-koa eta musikologo handia da eta. Gonbidapen hori jaso genuenean, gure artean pentsatu eta baietza ematea erabaki genuen. Printzipioz bi emanaldi horiek emateko konpromezua hartu dugu,

“EEBBetara kantatzera joateko asmoa dago, bertako telebista katai batzuk interesa agertu dute eta”

baina diskarena ez da guztiz ziurra.

— **Beraz, Siloseko monjeek ez dute disko horretarako abestuko?**

— Ez, kontuan izan behar da monjeak direla eta ezin dutela alde batetik bestera girak etabar egiten ibili. Bestalde, Siloseko koruan kantu gregorianoa ondo abesten duten 4 monje besterik ez daude eta nahiko zaharrak dira, euren ahotsak ez daude “oso egoera onean”, beraz. Bestalde, monje gazteek ez dute oraindik oso ondo abesten, esperientziarik ez dute-lako.

— **Aretxabaletako gregoriano taldeko ahots guztiek hartuko dute parte?**

— Ez. Ismael Fernandez de la Cuestak ahots kopuru mugatu bat jarri zigun eta aukeraketa egin behar izan dugu: 18k hartuko dute parte.

— **Kantu gregorianoak abesten dituen koro asko dago E.Han?**

— Ez daude asko; hiru besterik ez eta guztiak, mailari dagokionez, nahiko antzerakoak. Bata Donostian dago, bestea Gasteizen eta azkenik, gurea. Ismael 3 abesbatzekin egon zen eta ez dakit zein arrazoiengatik, Gasteizkoa eta gurea aukeratu zituen. Dena dela, Donostiakoarekin ere tratuetan dabilela uste dut.

— **Noiztik kantu gregoria-noarekin?**

— Duela 14 urte hasi ginen Aretxabaletako abesbatzaren barruan kantu gregorianoa lantzen. Elizan abesteko eta Tolosako abesbatzen lehiaketan partehartzeko hasi ginen gregorianoarekin eta gerostik, hainbat alditan izan gara Siloseko komentuan Tolosako lehiaketarako prestatzen eta ikasten. Dena dela, gregorianoaren saila Tolosako lehiaketatik kanpo geratu da orain eta ezin dugu parterik hartu.

— **Aretxabaletako gregorianoa abesbatzan, emakumerik badago?**

— Bai eta gainera bronzeko domina irabazi zuten behin Tolosako lehiaketan.

— **Dena dela, orain Ismael**

Lore lurrindegia

Olarte kalea, 10 ARRASATE fnoa: 79 14 99



Olarte, 30 etxabea.
Tfnoa: 79 77 11
Faxa: 79 77 11
ARRASATE
Postakutxa: 118

HAUR KANTATA - CANTATA INFANTIL



Gipuzkoako Abesbatzen Elkarte
1994

Haur kantaren jaia mitologiarekin lotuta dago.

Mitoen Sinfoniarako prest

Datorren igandean azaroak 20, Gipuzkoako Abesbatzen Elkarteak On Joxemiel Barandiarani egingo dion omenaldiaren barruan, Gipuzkoako 2000 haurrek "Mitoen Sinfonia" haur kantata abestuko dute Anoetako belodromoan. Arrasatek bi abesbatzetako haurrek abestuko dute gainontzeko abesbatzetakoekin: San Viatorreko Ortzadarrekoek eta Goikobalu Txikikoek.

Makinatxo bat hilabete daramatzate haur kantata prestatzen. Duela aste pare bat Eibarren egindako entsaio orokorrean, Eskudero azken orduko aldaketa batzuk egin zituen eta horrela, "Mitoen Sinfonia" prest dago iganderako.

Arrasatek haurrak goizeko 8etan aterako dira eta guztiak Donostian elkartzen direnean, entsaio orokorra egingo dute. Emanaldia eguerdiko 12.30etarako dago iragarrita eta ordu berean zabalduko dira belodromoko ateak. Dena dela, kantata entzutera joan nahi duten guztiei lehenxeago joatea gomendatzen zaie, kotxea uzteko arazoak sortuko dira eta. Jakin ere ikusleek bertan bazkaltzeko aukera izango dutela. Sarrerarik lortu ez duzenok, Kajoi tabernan dauzkazue salgai: helduentzat 700 ptatan eta haurrentzat 300 ptatan.



Gabonetarako salgai izango da Goikobaluren konpaktoa.

Goikobaluren CDa

Goikobalu abesbatzak CDa grabatu berri du Billabonako IZren grabaketa estudioetan, Ignacio Riuz de Alegriaren zuzendaritzapean. Grabaketa bi asteburutan egin da, azaroaren 5 eta 6an, eta 12 eta 13an. Guztira 60 bat ahotsek hartu dute parte konpaktoan.

Disko konpakto hau egitea MCC eta Goikobaluren arteko kolaborazioa izan dela aipatu behar da. Goikobalu eta MCCren arteko harremanak betidanik izan dira estuak, beraz, MCCk izaten dituen bisitak direla eta, inguruko kanta folkloriko ezagunenak bilduko dituen konpakto bat opari ona izango zelakoan, Arrasateko abesbatzari luzatu zion proposamena. Goikobaluk gustora hartu zuen ideia eta MCCk finantziatu du konpaktoa.

MCCra heltzen diren bisitez gain, konpakto hau edozeinek eskuratu ahal izango du. gabonetarako dendetan salgai egongo dela espero da eta. Printzipioz 2000 konpakto-kopiratu aterako da eta Arrasateko dendetan salduko da bakarrik. Konpaktoak arrakasta izaten badu, inguruko herrietako dendetan saltzeko asmoa ere badago.

Memesa
79 42 22

S. CARRASCAL S.L.

Bertan egindako:

- Sukalde altzariak
- Armairu enpotratuak
- Trastelekurako armairuak

Fabrikari erakusketa

Gipuzkoa etorbidea, 6 -1.a
Tfnoa /FAX: 79 01 82



**Umeentzako
moda**

Ferrerias Kalea, 34
ARRASATE
Tfnoa: 79 97 86



Musakolako Eskola zaharrean ibilitako ikasle taldea.

eskola hartan ikasten zuten ikasleak dira erretratuko hauek, eta ez zuten denbora asko elkarrekin egingo, elkar ezagutzeko lan handiak dituzte eta. Ikasturte hark azkenetakoa izan behar zuen han, gero San Antolin Eskolara joan ziren eta talde hartako asko oso sakabanatuta ibili da harrezkero. Arrasatetik kanpora joandakoak ere asko ei dira. Ikasleen artean, Ziorkakoak eta Santa Teresa inguruetako orduko etxe berrietakoa ei ziren asko. Ezagutu ahal izan ditugun izenak hor doaz, eta norbaitek bere burua "ezezaguntzat" jo dugula ikusten badu, ez dezala txarto hartu, eta bakoitzak

osa dezala garai hartako bere eskolakideen zerrenda.

Irakaslea **Alizia Gaztanbide** zen, gero Arrasatetik alde egin zuena.

Goian ezkerretik lehen biak ezezagunak, **Perez, Lozano, Jokin Ortiz**, ezezaguna, **Salva, Duque, Horrillo**, ezezaguna, **Rafael Barquero, Raul Puerto, Txin Barrutiabengoa, Gatzka Mondragon, Alberto Garai, Miguel Angel Laguna**, ezezaguna, **Roberto** izeneko bat, **Iñigo San Vicente, Carlos Cornes** eta **Alizia Gaztanbide** irakaslea.

Bigarren lerroan ezezaguna, **Asun Agiriano**, hu-

rrengo biak ezezagunak, **Karmentxu Zuazubiskar, Mari Luz Vitoria, Maite Gallastegi**, ezezaguna, **Ana Mari Lasaga, Feli Cornes, Mari Jose Lozano, Marixabel Urrutia, Maria Pilar Fernandez**, ezezaguna, **Juan Antonio Beitia, Josefa** izeneko bat eta alboko biak ezezagunak.

Jarrita ezkerretik hasita, **Ascen eta Marilu** izeneko neska bi, **Mari Jose Urrutia, May Bedia**, ezezaguna, ezezaguna, ezezaguna, **Blanca Jauregi, Fernando Izquierdo**, ezezaguna, **Encarni Amorós, Mertxe Najera, Chari Morales** eta **Basilia Moyano**.

M

usakolako Eskola gaur egun jubilatuen etxea dagoen lekuan zegoen garai batean. Erretratuan ageri den etxe horretan, hain zuzen ere. Kaminoz bestekaldetik San Isidro eliza, Bergara alderako kaminoaren alboan.


Orain 25 urte inguru

UGARAN
jatetxea

EHOROKORROA

Aries Oribanda horiek ez dituzte parent jarraitzen...
Taurus Kasamentero...
Gemini Sorkuntza...
Cancer Jorri...
Leo Zin...
Virgo Pikatza...
Lira Hainbat...
Scorpio K...
Capricornio...
Aquarius...
Pisces...

ERAZTEKIA



ALBUA

Karitatea...
 Justizia...
 DICEBAS

ALALAN UNIBERTU ZIGI

Lezuak ezin izateko



Es oze lagunak

Lezatu izan FICEI
 baxter garu gnu
 zelura dantzan
 kibe mungarrik ez
 hotsik ez berotik ez
 soinurk...

ATE + ISIBOK

DEIA GARAIKO MANKOMUNITATEA
 MANKOMUNIDAD DEL ALTO DEBE


Markete Indusialden...
 Gipuzkoako Foru Aldundia
 Diputación Foral de Gipuzkoa

• AIPUA •

*Karitatea neure
etxean hasten da eta
justizia hurrengo
atean.*


DICKENS

• JEROGLIFIKOA •



Ez oso lagunak

• GURUTZEGRAMA •



J. B. AGORRIA

Horizontalak 1. Xaflatu. 9. Erremedio. 10. Iparretarrak. 11. (Ald.) Hegala, bazterra. 12. Oihaneko erregea. 14. (Ald.) Biseradun txapel zilindrikoa. 15. (Ald.) EEBBetako saskibalo liga. 17. Herri musulmanetan buruzagia. 18. Alkoholiko Anonimoak. 19. Nonbait. 20. (Ald.) Zentzazio ezatsagina.

Bertikalak 1. Mankomunitateko lehen-dakaria. 2. Askatzearen ekintza. 3. Malagako ibilgailuetan. 4. Ikatza egiten duen pertsona. 5. Kostalde Urdineko hiria. 6. (Ald.) Itxura, tanke-
ra. 7. Mitra. 8. (Ald.) Mantentzearen ekintza. 13. Romuloren anai bikia. 16. Baiezatzeko.

• HOROSKOPOA •

Aries Dudamuda horiek ez dizute batere lagutzen.

Taurus Kasamentero galanta egin da zaude. Baina zuk zerbait lortu duzu?

Gemini Sokatira selekzioan tokia daukazu. Zu mugituko zaituenik ez dago.

Cancer Joan den astean lotoan jokatu bazenu, saria lortuko zenuen.

Leo Zein lotsa zu dantzan ikustea. Txorimaloa dirudizu.

Virgo Pikuak jateko sasoia da, ez jendea pikutara bidaltzekoa.

Libra Harroputza zarela esaten dizute. Baina auto berriaz zein ez?


Scorpio Zure bihotzak pozoina dario. Benetan gaiztoa zara.

Sagitaris Askoz ere apalagoa zarela eta, orain lagun gehiago egingo duzu.

Capricorn Harakinak iruzur galantak egiten dizkizu. Kontuz berarekin!

Aquarius Sasoian jartzeko, kirola egin eta mendira joatea komeni zaizu.

Piscis Datorren urterako ospea lortuko duzu Euskal Herri gutxian.




WERU

Ate + leihoak



Markulete Industrialdea, 20. pabiloia
Tfnoak: 79 24 12 eta 79 97 95 ARRASATE



Ezagutu itzazu PVCren bitartez gaur egun eskura dauzkazun leiho miresgarriak, ez hotsik, ez berorik, ez soinurik...

TELEBISTAREN TXOKOA

Ibilixan Dabilena: Algeria hegotik iparrera

Datorren asteko saioan, Xabier Albistur abenturazalea izango da gure platoon. Xabierrek duela urte batzuk (Argelien gatazkarik ez zegoenean) hegotik iparrera zeharkatu zuen Algeria "todoterrenoan" eta bidaia horretan gertatutakoak azaltzera etorriko da.

Bestalde, Ion Aldanondok eta Eneko Aranguren Hueskako Riglos mendikateko ibaian raftigari buruz egin zuten erreportaia zoragarria ere ikusi ahal izango duzu. Irudiak espektakularrak dira! Badakizu, ostegunean 9.30etan ez galdu "Ibilixan Dabilena".

SOLUZIOAK

Eisalak

Jeroglifikoak:

8. Mantenu, 13. Remo, 16. Bat.

Bertikalak: 1. Loti, 2. Askapen, 3. Ma. Ikazkin, 5. Niza, 6. Antza, 7. Tur. Kep, 15. NBA, 17. Emir, 18. AA, 19. Inon, 20. Min.

Horizontalak: 1. Laminatu, 9. Osakizun, 10. IK, 11. Ertza, 12. Tarzan, 14.

PROGRAMAZIOA

**20 Igandea**21.00etan
Mondragol**21 Astelehena**13.30etan
Mondragol (errep.)
20.00, 20.30 eta 21.00etan
Berriak
21.30etan
Mondrasport**22 Asteartea**13.30etan
Mondrasport (errep.)
20.00, 20.30 eta 21.00etan
Berriak
21.30etan
ATBketan**23 Astezkena**13.30etan
ATBketan (errep.)
20.00, 20.30 eta 21.00etan
Berriak
21.30etan
Pareak Jokuan**24 Osteguna**13.30etan
Pareak Jokuan (errep.)
20.00, 20.30 eta 21.00etan
Berriak
21.30etan
Ibilixan Dabilena
Gonbidatua: **Xabier Albistur**; Todoterrenoan, Argeliatik bidaia. Erreportaia: Rafting-a.**25 Ostirala**13.30etan
Ibilixan Dabilena (errep.)
19.15etan
Marrazki Bizidunak
19.50etan
Kukaratxa Motel
20.00, 20.30 eta 21.00etan
Berriak
21.30etan
Astebete Xabier Ibarzabalek aurkeztua.
22.00etan
Marrazki Bizidunak

Txalaparta Ikastaroa

Ttakun taldearen eskutik

- Azaroaren 26tik otsailaren 11ra
- Larunbatetan, 2 txanda 9,30- 11,30
11,30- 13,30
- Arrasate Musikal Akademian
- Matrikula: 1.000 Pta.
- Izenemateak: Gazte Bulegoan ☎: 77 00 65
- Plaza Mugatuak



Etxebizitzak

- **Etxebizitza erosi edo alokatuko nuke.** Tfnoa: 79 31 25.
- **Etxebizitza osatzeko mutil bat behar dugu** Bilbon. Prezioa: 13.500 pta. Tfnoa: 79 49 18. Gorka.
- **Famili baten etxean 2 ohedun logela alokagai.** Eskola Politeknikoaren ondoan. Tfnoa: 79 40 53.
- **Arrasaten neska bat behar dugu** pisua osatzeko. Prezioa 9.500 pta. hilero. Deitu 79 70 77 tfnora (Aintzane).
- **Jantzitako etxebizitza salgai** Uribe Auzoan, 5. zenbakia, 2. pisua. Tfnoa: 94-683 07 72.
- **Etxebizitza alokatuko nuke** eta beste lagun batzuk ere etxea osatzeko prest bazaudete, jarri nirekin kontaktuan. Tfnoa: 81 21 71. (Xabier, 8etatik aurrera)
- **Bi oheko logela alokatzen da.** Tfnoa: 79 07 73.
- **Etxea salgai Uribe auzoan.** 85 m². Tfnoak: 79 97 86 & 79 86 37.
- **Salamancan etxebizitza salgai.** 5 logela, egongela, 2 komuna eta sukaldea. Eguzkitua. Prezio arrazoizkoa. Komunitate gastu gabe. Tfnoa: (923) 23 55 85. Deitu arratsaldeko 2etatik 5etara.

Lana

- **Zure etxeko lanak egiteko prest nago** (esperientzia daukat). Tfnoa: 79 93 17.
- **Neska umeak zaindu edo etxeko garbiketak** egiteko prest egongo litzateke, goizeko 8:30etatik eguerdiko 3ak arte. Tfnoa: 78 71 38. Noelia.
- **Marraskia teknikorako irakaslea** behar dut. Tfnoa: (94-682 02 60).

- **Gaixo edo/eta adineko pertsonak** zaintzen ditut. Tfnoa: 945-17 07 28. Bautis.
- **Irakasle bat behar da** UBI mailako euskara emateko. Tfnoa: 79 06 24. (Arratsaldeko 8etatik aurrera deitu).
- **Klase partikularrak ematen dira:** kontabilitatea, estatistika, ekonomia, OHO eta UBI. Tfnoa: 77 04 82. Amparo. Esperientziaduna.
- **Umeak zaindu edo etxeko lanak** egingo nituzke. Baita garbitasun lanak orduka ere, taberna, etxe edo jatetxeetan. Tfnoa: 79 96 10. Maritxu.
- **Klase partikularrak.** Ingelesa. Esperientziaduna. Tfnoa: 79 21 56. Edurne.
- **Klase partikularrak ematen dira:** latina, gaztelera, euskara, ingelesa. Maila guztiak: OHO, BO, GB, BBB, UBI... Esperientziadun lizentziatua. Tfnoa: 77 04 07. (Goyo).
- **Pertsona bat behar da** UBI mailako klaseak emateko, euskaraz. Tfnoa: 79 06 24. Arratsaldeko 8etatik aurrera.
- **Informatikako klaseak ematen dira.** Soinua, sistema eragileak eta grafikoak. Tfnoa: 77 02 59. Iker.
- **Sasoiko emakumea** ume edo pertsona helduak zaintzeko prest. Deitu 79 23 54 tfnora.
- **Frantsesezko mintza-praktikako klaseak** jasoko nituzke. Tfnoa: 79 22 13.
- **Etxeko lanak egin, haurrak zaindu** edo dendari lan egingo nuke. Tfnoa: 79 77 32 (M^a Carmen).
- **Baxuzko klaseak** ematen ditut. Tfnoa: 79 78 65. (Victor).
- **Haurrak zaintzeko** edo etxea garbitzeko andra euskalduna eskaintzen da. Tfnoa: 79 07 73.
- **Haurrak zaintzeko** esperientziadun neska eskaintzen da. Tfnoa: 79 77 97. (M^a Eugenia).
- **20 urteko gaztea** lan egiteko gertu. Tfnoa: 79 44 86.

Salerosketak

- **Bigarren eskuko ordenagailua** erosiiko nuke. Tfnoa: 77 04 98. Irene (Bulego orduetan).
- **150 litroko ur berogailua** salgai. Oso egoera onean eta merke. Tfnoa: 78 33 09. (Ainhoa).
- **Fagor markako 100 litroko termoa** prezio onean salgai. Tfnoa: 79 07 73.
- **Garajea daukat alokagai.** Tfnoa: 79 19 64. Roneon dago.
- **Garajea salgai Atxabaltan.** Tfnoa: 77 04 90.
- **RENAULT CLIO salgai (SS-AL).** 13.000 Km. Tfnoa: 79 91 48. 9etatik aurrera.

Denetarik

- **20 egun dela,** urrezko eskuturrekoa galdu nuen. Aurkitu baduzu, 77 14 55 tfnora dei egin. (Miriam).
- **Deustun goizez ikasten bazabiltza** eta kotxez joan nahi izan ezkerro, badaukagu lekua. Tfnoa: 79 51 57.
- **Urrezko eraztuna** galdu dut Arimazuri eta Lagun-Aro inguruan. Opari berezi bat da eta aurkitu duenari eskertuko niok dei egitea. Tfnoa: 945-28 67 44. Bego.
- **ASA argazkilaritza taldeak** etxean traban edo kendu guran dituzun altzari guztiak pozik hartuko litzuzke. Harremanetarako dei egin 79 03 90 tfno zenbakira.
- **Azaroaren 10ean giltzak** aurkitu zituzten frantziskotarren kalistroetan. Giltzak ARRASATE PRESSEN daude.
- **Ingeleseko kuaderno galdu zait.** Aurkitu baduzu, dei egin 77 10 59 zenbakira.

Aste Gazte

Lana

• 340 postari lanpostu kaleratu dira. Lanpostu bat Araban, sei Gipuzkoan (1 Aretxabaletan eta beste 1 Elgetan), sei Bizkaian eta hamabi Nafarroan. Oinarriak eta istantziak Correoseko bulegoetan har daitezke. Epea: azaroak 23.

Ikastaroak

• Argazkigintza II. mailako ikastaroa (errebelatua koloretan, besteak beste), Benito Cantero Bergarako Pol-Pol argazki taldeko kidearen eskutik. Azarotik-abendura, astearte eta ostegunetan,

arratsaldeko 7etatik 9etara. Matrikula: 3.000 pta (1.500 ikasle eta langabetuentzat).

• Hastapen mailako txalaparta ikastaroa, "Ttakun" txalaparta taldearen eskutik. Larunbat goizetan, azaroaren 26an hasita otsailaren 11ra arte. Bi txanda: a) 9.30etatik 11.30etara b) 11.30etatik 13.30etara. Matrikula: 1.000 pta.

Gaztemaniak

• Bill Thomas Blues Bandaren emanaldia, gaur ostirala, hilak 18. gaueko 10.30etan, Amaia antzokiko hallean. Sarrera 300 pta, kontsumizio

batekin.

Irteera

• "Gazte Txokoak" antolatuturik, 14-17 urte bitarteko gazte guztiei zuzenduta, egun osoko irteera Aizkorri mendira larunbatean, azaroak 19. Irteera, goizeko 9etan Musakolako gazte txokotik (Musakolako Auzo Alkatetzan).

Lehiaketak

• Eibarko Hiriak, "Gazteen X. Ipuin Lehiaketa" euskaraz eta erderaz" deitu du. 25 urte arterainoko guztiek har dezakete parte. Gai libre. Epea: azaroak 25.

• "XII. Tene Mujika" narrazio motzeko literatur saria. Gai libre. Epea: azaroak 25.

"Rap deritzotena erritmoa eta errimak baino ez da, eta larriena gazte askok hori musika dela pentsatzea da".

MARILYN HORNE,
ESTATUBATUAR MEZZO-SOPRANO,
EGUNKARIAN.



Informazio gehiago:
GAZTE ZERBITZUA
Tfnoa: 77 00 65

Jose Aranzabal

Iyurriotz, 15

Tfnoa: 79 15 16

E
L
E
K
T
R
A
T
R
E
S
N
A
K

S
U
K
A
L
D
E

A
L
T
Z
A
R
I
A
K



*Aintzindarren zaporea
geroaren ikusmena*

Jose Aranzabalena



*zerbitzuan kalitate
eta trataturik onena*

Bañez Dtorea, 2

Tfnoa: 79 18 92

BERRI TXARRAK KONPETENTZIARENTZAT.



BERRI ONAK ZURETZAT.

ECOTEC 16 eta

Turbo-Diesel Motore Berriak.

Ecotec, Opel motoreen generazio berria:

- Balbula-aniztetan teknologiarik onena.
- Kontsumoan %20 gutxiago.
- Potentzia eta malgutasun handiagoa.
- Kutsadura maila txikia.


Eta gainera, Turbo-Diesel berria eraginkortasun eta errendimenduan eredu da, eta baita isiltasunean ere.



Orain Ekipamendu

hau Dohainik*.

- Gidarien albokoarentzat neurri handiko Airbag-a.
- Aire girotua⁽¹⁾.
- Itxitura zentralizatua.
- Leihoak isteko elektrikoak.
- Direkzio lagundua.



Edo, nahiago baduzu, deskontu baliokidea. Eta gainera, bertsioren arabera zure Opel Astra '95berria estreinatzeko beste arrazoi asko.

* Eskaintza berezi honek stockean dauden 4 eta 5 ateko autoentzat balio du, hilabete honetan zehar.

Flotako salmentez, galde Banatzaileari.

⁽¹⁾ Gasolinazko motoreak bakarrik.

OPEL

OPEL BANATZAILE OFIZIALAK, ESPERIENTZIAGATIK ONENAK.

**10^o
URTEURRENA**

TALLERES OLA

Olabarrena Auzoa, z/g. Tfnoak: 76 33 44 / 45 / 46. **BERGARA** (Gipuzkoa)